



65,3
mila
milioi dolar
Erresuma Batua

Frantzia
65,7 mila
milioi dolar

Txina
84,9
mila
milioi dolar

AEB
607
mila
milioi dolar

Historiako aurrekontu militarrik handiena **Obama Bakearen Nobel sariak egindako ekarpena**

Larrun gehigarria Euskal kulturaren transmisioa

- **Txelui Moreno:** «Fase politiko berri batean gaude, umilagoak izan behar dugu denok»
- **Ainhua Agirreazaldegi:** «Emakume bertsolarien ereduak puskatzeko ereduak behar ditugu lehenbizi»
- **Luis Berrizbeitia:** «Itzulpenetan idazleari leialtasuna zor zaio, baina irakurleari gozotasuna»
- **Carlos Callón** Queremos Galego plataformako bozeramaileari elkarrizketa

galdera-erantzun bidezko

mahai-jolasa

badakit

35 euro

ARGIAren harpidedunek

%15eko deskontua

FORMATU BERRIA

Ludi**toys** 

Eskaerak: 943 36 86 61

info@luditoys.com

www.luditoys.com

DVD



- 4 Deabruaren abokatua: Javier Elzo.**
Aritz Galarraga.

Pertsonaia

- 10 Ainhoa Agirreazaldegia: "Ezin dut bertsolari izan emakume feministaren kontzientziarik gabe".**
Uxue Alberdi.

Iritziak

- 19 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
20 Ttakun (h)errenka. Marroi pixka bat? Ixiar Rozas.
21 Kartoizko munduak. Aitor Zabaleta.
Zero zabor. Joxemari Ostolaza.
22 Kontra(k)tu(ra) soziala. Iñaki Odriozola Sustaeta.
Ontsa lehiazteko bidean. Amatiño.
23 Zirtak. Coelho. Patxi Zubizarreta.
24 Bertso berriak. Eraikuntzari jarriak. Aitor Albistur.

Erdiko kaiera

- 25 Luis Berrizbeitia: "Gehiegi egiten diogu muzin gure tradizioari".** Miel A. Elustondo.
28 Liburuak. Igor Estankona.
29 Diskoak. Iker Barandiaran.
30 Ezpalak. Jon Torner.
31 Abarrak. Mikel Garcia.
32 Ihesi: Valderejo (Araba). Saiaren erreinuko haitzetan gora. Gorka Azkarate.
36 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
38 Zientzia eta teknologia. Joxerra Aizpurua.
39 Landareak. Jakoba Errekondo.
40 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 44 Carlos Callón, Queremos Galego plataformako bozeramalea: "PPren decretazoaren kontrako unanimitate hau historikoa da".** Unai Brea.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.

Azkena

- 50 Jakin-mina eta plazeboak.** Bixente Serrano Izko.

5 | Gastu militarra | Daniel Udalaiz

Ekonomia krisialdian egon arren, gastu militarra bilioi bat euro bideratuko da aurten munduan. AEB buru, dirutza da Irak edo Afganistango gerretan xahutzen dena. Euskal Herrian ere, 596 euro jartzen ditugu biztanle bakoitzak gastu militarri aurre egiteko, munduko batez bestekoaren gainetik (159 euro).




16 | Angustias Bertomeu, IKT eta generoa Jon Torner

48 | AEBetarrak medikuntza ikasten Kuban Pello Zubiria

41 | Txelui Moreno | Mikel Asurmendi

ETak Parisko inguruetan jendarme bat hil aitzin aritu ginen solasean Txelui Morenorekin. Ezker abertzaleak adimenez eta arduraz jokatzeko unea dela adierazi digu, baita uneon prozesu demokratikoa gauzatzeko baldintzak daudela ere.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea.



“Indibidualismo hedonistak bizi gaitu”

Javier Elzo | Soziologoa

Pedofiloa izan gabe,
gaztetxoak ikertzen dituen gizon heldua.

ARITZ GALARRAGA
Argazkia: Iñigo Azkona

Zer gertatzen zaigu gazteoi, hainbeste ikerketa merezi izateko?

Gaurko gazteek gauza asko dituzte, aukera asko, baina bakar-bakarrik daude. Psikologoak, pedagogoak, programazioak.... Baina falta zaie etxe bat, bizitza familiar eta soziala.

Larria al da, mediku jauna?

Tira, edozer gauza da larria orain, edozerk arduratzen gaitu. Momentu honetan zoriontasuna gauza gutxi egitean datza.

Gehiegi edaten omen dugu...

Gure garaian ere bai! Nire aitonarekin joaten nintzen ni ardoa edatera, hamar urterekin. Desberdintasuna: alkohola eguneroko bizimoduarekin zegoen lotuta.

Poteoaren eta botelloiaren artean, beraz, zalantzarik ez duzu.

Besterik ez dut ezagutu! Orain daukagu botelloia: hori da sistema nordiko bat, astean zehar ez da tantarik edaten eta gero gau batean dena.

Baloreak ere galdu omen ditugu...

Ez! Ezin dut jasan hori entzutea! Ez dira baloreak galdu, aldatu egin dira, eta ez bakarrik gazteen kasuan. Esfortzua, lana, sakrifizioa... Indibidualismo hedonistak bizi gaitu.

Inork ez zigun esan kristau izatea erraza zenik...

Kristautasunaren balore batzuk aldatu dira, justizia soziala, elkartasuna. Posible litzateke gaur, 2010ean, Mondragon berri bat ateratzea? Segur aski ez. Dirua bilakatu da gure Jaungoiko.

Ez al zuen politikak ordezkatu erlijioa?

Dezepzio bat dago egun politikarekin. Gazte gehienek paso egiten dute politikaz eta politika gehien interesatzen zaien gazteen perfila HBkoa da. Hori kezagarria da niretzat.

Gazteok gora, gazteok behera ari naiz, baina aurten kenduko didate Gazte Txartela.

Lasai, Frantziako lege baten arabera, pertsona bat gaztea da 35 urtera arte. Gizartearen araberrakoa da hori. Baina, noski, jendeak nahi du gaztea izan, beste ezeren gaitetik.

Egidazu euskal gizartearen erretratu txiki bat, mesedez.

Apal ikusten dut, beti administrazioari begira. Gogoratu esaldi famatu hura: ez galdetu zer egin dezakeen herriak nigatik, baizik eta zer egin dezakedan nik herriarengatik.

A! Zuk esana da: “ETak emakumezkoak bidaltzen dizkie bisitan gizonezko presoei, harreman sexualak eduki ditzaten”. Egia ote?

Hori ulertu bazen barkamena eskatzen dut. Bisitetatik, batzuetan, harremanak sortu dira. Baina horrek ez du esan nahi ETak bidaltzen dituela emakumeak. Gainera, elkarrizketa hartan presoen egoera humanizatu beharra dagoela azpimarratu nuen. ■

• ASTERO GAIA •

Gastu militarra

Bilioi bat euro gerrarako

Munduko gastu militarra bilioi bat euro ingurukoa izango da aurten, eta 2011rako askoz kopuru handiagoa aurreikusi da. Krisi ekonomikoak ez du geldiarazi gobernuen gastu itzela, armak ekoizteko, gerrak egiten jarraitzeko eta nazioarteko “terrorismoa” deiturikoari aurka egiteko.

DANIEL UDALAITZ

Munduan izan den historiako aurrekonturik handiena aurkeztu du gastu militarreko Barack Obama lehendakari estatubatuarrak 2011rako: 518.643 milioi euro. Irudian, AEBek abiatutako gerren aurkako protesta New Yorken.





Terrorismoari aurre egiteko aitzakian, munduko potentzia militarrik garrantzitsuena diren AEBek 74.000 milioi euro erabiliko dituzte aurten Irak-eko (eskuinean, goian) eta Afganistango (eskuinean, behean) gerretan.


ORRI HAUETAN emango ditugun datu eta zenbatekoak entzute handiko nazioarteko erakundeetatik hartu ditugu, Stockholm International Peace Research Institute-tik (SIPRI) esate baterako (Bakearen aldeko Ikerketen Stockholmeko Nazioarteko Institutua), eta egia esan datu txundigarriak dira, batez ere munduak gaur egun duen gizarte, ekonomia eta lan errealitatea nolakoa den ikusita. Gaitz eta pandemiak jota egunero munduan milaka pertsonak bizia galtzen duten bitartean –FAO-ren arabera 2009an 1.020 milioi lagun egon ziren goseak jota, 2008an baino 100 milioi gehiago–, 2010. urte honetan munduan bilioi bat euro inguru gastatuko dira armetan.

Zenbateko hori ondorioztatzen da 2008ko datu ofizialetatik, sektore honetan diru gehien gastatzen duten munduko herrialdeen 2009ko datu oraindik osatu gabe eta ez ofizialetatik eta 2010eko aurrekontuetatik. SIPRI erakunde fidagarriaren urteko txostenak dioenez, 2007. urtearekin alderatuz 2008an munduko gastu militarra %4 hazi eta 1,46 bilioi dolarrean iritsi zen (1,05 bilioi eurora). 2009. urteko datuak uda baino lehen

Euskal Herriko biztanle bakoitzak batez beste urtean 596 euro jartzen ditu gastu militarriari aurre egiteko. 159 eurokoa da munduko batez bestekoa

argitaratuko dira, eta hor 2008koak baino datu pixka bat apalagoak azalduko diren arren, ez da aldaketa handirik ikusiko.

Egia da 2009an eta 2010ean aurrekontu militarrek pixka bat murriztu zirela (batez beste %2), baina oraindik ere dirutza handiak erabiltzen dira. Dagoeneko jakina da AEBek, munduko potentzia militarrik garrantzitsuenak, 2010ean guztira 680.000 milioi dolar (498.215 milioi euro) erabiliko dituztela gastu militarretarako eta kopuru horretatik 101.000 milioi dolar (74.000 milioi euro) joango direla Irakek eta Afganistanek eragindako gastuetara. Ezaguna da AEBen 2011rako aurrekontua ere; 708.000 milioi dolarrekoa (518.643 milioi euro) izango da eta errekor guztiak hautsiko ditu. Bestalde, 159.000 milioi dolar (116.475 milioi euro) erabiliko dituzte AEBek Irak, Afganistan eta Pakistango gastu militarretarako. Frantziako estatua-ren kasuan, 2010erako aurrekontu militarrek 65.700 milioi dolar ingurukoak izango dira (47.050 milioi eurokoak). Espainiako Estatuak berriz, aurten 25.827 milioi dolarreko gastu militarra egingo du



Giza baliabideak eta baliabide militarrek

	AEB	TXINA	FRANTZIA	ERRESUMA BATUA
Jardunean dagoen militar kopurua	1.490.000	2.105.000	254.000	180.000
Itsaspekoak	71	62	10	13
Hegazkin ontziak	11	0	2	3
Gerraontziak	95	75	33	25
Gerra hegazkinak	3.829	2.554	316	354

2008. urtean inbertsio militarrik handienak egin zituzten munduko lau herrialdeen datuak.

Arma salmentak eta etekinak (Dolarrak, milakotan)

ENPRESAK	SALMENTAK	ETEKINAK
1-Boeing (AEB)	30.480	4.074
2-Bae Systems (Ingalaterra)	29.850	1.800
3-Locheed Martin (AEB)	29.400	3.033
4-Nortrop Grumman (AEB)	24.600	1.803
5-General Dynamics (AEB)	21.520	2.080
6-Raytheon (AEB)	19.540	1.474
7-EADS-Europa (Herbehereak)	13.100	-610 (*)
8-1-3 Communication (AEB)	11.240	756
9-Finmeccanica (Italia)	9.850	713
10-Thales (Frantzia)	9.350	1.214

2007an arma gehien saldu zituzten hamar enpresak.
(*) Galerak.

Iturria: SIPRI

(18.926 milioi euro), 2009an baino %2,4 gutxiago. Hala ere, egunean 50 milioi euroko gastu militarra dauka Espainiak.

Gastu osoaren erdia baino gehiago AEBek egin zuten 2008an; guztira 600.000 milioi dolar gastatu zituzten (430.000 milioi euro). Horrez gain, azken hamarkadan izandako gorakada orokorraren %58 ere AEBek zuzen zuten. Zerrendaren bigarren lekuan Txina dago, 84.900 milioi dolarreko gastuarekin (60.800 milioi euro). Atzetik dituzte Frantzia 65.700 milioi dolarrekin (47.050 milioi

euro), Britainia Handia 65.300 milioi dolarrekin (46.765 milioi euro) eta Errusia 58.600 milioi dolarrekin (41.970 milioi euro). Lehenengo hamar herrialdeen zerrenda Alemaniak, Japoniak, Italiak, Saudi Arabiak eta Indiak osatzen dute, hurrenez hurren. Espainiako Estatua, 25.827 milioi dolarrekin (18.926 milioi euro), hamabosgarren lekuan dago.

Azken hamarkadan bai Txinak eta bai Errusiak hirukoiztu egin dute gastu militarra, eta India, Saudi Arabia, Iran, Israel, Bra-

Harpidedun egin zaitez 44€ eta opari gisa liburu hauetako bat:

ARTEZ

44€ (Bez eta bidalketa gastuak barne), 12 zenbaki (bat hileko) urte betez

Abantailak:

- %25 beherapena Artezblai Argitaletxeko liburuetan
- %5 beherapena Yorick liburudendan eros daitezkeen gainontzeko liburuetan

Tel: 944 795 287 • www.artezblai.com • artez@artezblai.com



AEBen atzetik, Txina da gastu militarrik handiena egiten duen bigarren herrialdea.

sil, Hego Korea eta Aljeriaren moduko eskualde mailako botereek ere “ekarpen garrantzitsua” egin diote gorakada orokorrari. SIPRIko Sam Perlo-Freman goi ardura-dunaren esanetan, “terrorearen aurkako gerraren ideiak eragin du herrialde askok arazoei ikuspegi oso militarretik begiratzea eta ikuspegi hori gastu militar handia justifikatzeko erabiltzea”. Irakeko eta Afganistango gerrek Estatu Batuei bakarrik 903.000 milioi dolarreko (647.000 milioi euro) gastu militar gehigarria ekarri diela adierazi du Sam Perlo-Fremanek.

Biztanleko gastua eta BPGaren ehunekoa

Munduko gastu militar izugarri hau behar bezala baloratu ahal izateko, komeni da jakitea biztanle bakoitzak zenbat ordaindu behar duen gastuari aurre egiteko eta gastuak Barne Produktu Gordinean zein ehuneko hartzen duen. Bada, hain zuzen ere, biztanleko batez beste 217 dolarrekoa (159 euro) izan zen gastu hori 2008an. Munduko lau potentzia militar handien kasuan, hauexek izan ziren biztanleko gastuak: AEBetan 1.967 dolarrekoa (1.440 euro), Erresuma Batuan 1.070 dolarrekoa (784 euro), Frantzia 1.061 dolarrekoa (761 euro) eta Txinan 63 dolarrekoa (46 euro).

Obamaren Defentsa Sailak zehaztu ditu nazioaz gaindiko mehatxu berriak: Txina eta India, gorantz datozen superpotentziak direlako; eta “terrorismoaren eta kontra-insurgentziaren aurkako borroka”

Gastu militarrek BPGan eragiten duen ehunekoari dagokionez, munduko batez bestekoa %2,4koa izan zen 2008an. Munduko lau potentzia militar handien kasuan, hauek izan ziren ehunekoak: AEBetan %4, Erresuma Batuan %2,4, Frantzia %2,3 eta Txinan %2.

Euskal Herriko biztanle bakoitzak batez beste urtean 596 euro jartzen ditu, dagokion estatuari (Espainiari edo Frantziari) zergak ordainduz gastu militarri aurre egiteko. 2008ko datuei erreparatu, biztanleko munduko batez bestekoa gainditzen dugu. Frantziako Estatuan, urteko gastu militarra 1.061 dolarrekoa izan zen biztanleko (761 euro). Espainiako Estatuan aldiz 578 dolarrekoa (422 euro). Hortaz,

Euskal Herrian biztanleko batez bestekoa 596 eurokoa bada ere, begi bistakoa da Iparraldean gastua ia bikoitza dela.

Bestalde, ehun arma enpresa nagusiek –txinatarrek alde batera utzita– 347.000 milioi dolarreko (249.000 milioi euro) balioa zuten armak saldu zituzten 2007an

–SIPRIren arabera hori da datu fidagarriak ematen dituzten azken urtea–, aurreko urtean baino %11 gehiago. Arma enpresa nagusien zerrendaren buru BOEING estatubatuarra dago, 30.500 milioi dolarreko salmentekin (21.843 milioi euro). Hogei arma konpainia nagusien zerrendan enpresa europar eta estatubatuarrek besterik ez dira azaltzen. Espainiako Estatuak arma eta defentsa materialen munduko zortzigarren esportatzaile nagusia da. Eskuratu ditugun azken datuak 2007koak dira, eta datu horien arabera Espainiak 933 milioi euroko balioa duten esportazioak egin zituen –ikusi ARGIAko *Krisialdiak ez du armen negozioa geldiarazi* erreportajea, 2.208. zenb., 2009-11-29–.

SIPRIren arabera, munduan 8.400 bat buru nuklear daude erabiltzeko moduan. Horietatik ia 2.000 alerta handienean eta minutu gutxiren buruan jaurtitzeko prest daude. Guztira, dena den, 23.300 buru nuklear daude, biltegietan gordeta daudenak

edo desmuntatu behar dituztenak ere kontuan hartuta. Zortzi herrialdetan banatuta daude: AEBetan, Errusian, Txinan, Britainia Handian, Frantzian, Indian, Pakistanen eta Israelen.

Historiako aurrekontu militarrik handiena 2011rako

Horrez guztiaz gain, Barack Obama lehendakari estatubatuarrek 2011rako munduan izan den historiako aurrekonturik handiena aurkeztu du gastu militarreko. Errekor guztiak hautsiko ditu. Obamarentzat mundua gero eta arriskutsuagoa da eta, horregatik, joan den otsailan 708.000 milioi dolar inguruko gastu militarra aurreikusi du (518.643 milioi euro). Diru kopuru horrek estatubatuarren kritikak eragin ditu, errekor berria ezartzeaz gain krisi garaian aurkeztu delako, beste programa federal batzuk kendu dituzten aldi berean.

Gastu militarren zenbatekoak testuinguruan kokatzeko, Obamaren Defentsa Sailak lau urtez behingo defentsa azterketa egin du (Quadrennial Defense Review edo QDR) eta bertan adierazi du nazioaz gaindiko mehatxu berriak zein diren: Txina eta India, gorantz datozen superpotentziak direlako, eta “terrorismoaren eta kontra-insurgentziaren aurkako borroka”. Azken horretara bideratuko dira misio militar garrantzitsuenak. Pentagonoak Mexikoz eta Latinoamerikaz egindako aipamen txikian, bestalde, baieztatu du lankidetzaren militarrekin jarraituko duela, hego hemisferioan estatubatuarren presentzia mugatuaren bidez. Lehentahar militar estrategikoei buruzko lau urtez behingo txosten horretan, lehenengo aldiz,

Zer da SIPRI?

Bakearen aldeko Ikerketen Stockholmeko Nazioarteko Institutua (www.sipri.org) ikerketa estrategikoen institutua da, 1966an Suedian sortua, herrialde horretan 150 urtez etnik gabeko bakea izan zutela ospatzeko. SIPRIk lankidetzaren eta gatazken inguruko ikerketa zientifikak egiten ditu, gatazkak modu bake-tsuan konpontzeko behar diren baldintzak ulertzen eta bake iraunkorra lortzen laguntzeko helburuarekin.

Armagintzaren garapen, gastu militar, armen ekoizpen eta merkataritza, desarme, gatazka, gatazken prebentzio eta nazioarteko segurtasunari buruzko informazioa argitara ematen du ikerketen bidez. 2007az geroztik Bates Gill da SIPRIko zuzendaria, eta Nazio Batuetako goi karguetatik datozen edo munduan zehar enbaxadore izan diren zortzi pertsonaz osatutako batzorde betearazlea dauka bere esanetara.

atal handi bat eskaini zaie klima aldaketari eta horrek izan ditzakeen ondorio geopolitikoei.

Robert Gates-es, Defentsa-idazkariak, estrategia militarrek garatzerakoan kontuan hartu beharrekoa zera dela adierazi zion prentsari: munduan izan daitezkeen mehatxurik handienak eta hilgarrienak porrot egin duten edo hautsita dauden estatuetatik etorriko direla eta horiei egin behar zaiela aurre. Gates-ek eta AEBetako Estatu Nagusiko buruek ohiko esparrutik urrunago doazen erronka mota berriak daudela azpimarratu zuten. Ildo horretatik, gastu militarrek justifikatzeko epe ertainerako lehenetsunak hauek direla nabarmendu zuten: nazioa defendatzea, kontra-insurgentziaren aurkako operazio arrakastatsuak egitea, egonkortasuna lortzea eta terrorismoari kontra egitea, nazio bazkideen segurtasun ahalmena eraikitzea, ingurune zailetako erasoetan garaile ateratzea, suntsipen handiko armen ugaritzea-ri aurrea hartzea, eta ziberespazioan modu eraginkorrean jardutea.

Defentsa Ministerioak Kongresuan aurkeztutako QDRak dio AEBek, munduan dituzten interesak eta zereginak gauzatzeko, paregabeko ahalmena duten indar armatuak behar dituztela eta, horrez gain, indar armatu horiek nazioaren interesak defendatzeko eta guztien onerako erabiltzeko borondatea behar dela. Diotenez, AEBak dira distantzia zabaletan eskala handiko operazioak proiektatu eta aurrera eramateko gai den nazio bakarra. Leku horrek, beraien ustez, behartzen ditu historiak, ausardiak eta aldeko egoerek eman dieten boterea eta indarra administratzeko ardura izatera. ■



Txomin Etxaniz
TXAKOLINDEGIA

txakoli@txominetxaniz.com
Tel.: 943 14 07 02 • Getaria

«Ezin dut bertsolari izan emakume feministaren kontzientziarik gabe»

...ta handiago bilakatuko zara etorkizunean, zure txikitasunean...

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Zertan eragin du bertsolaritzak zure identitatearen eraikuntzan?

Bertsolaritzak neure burua Euskal Herrian kokatzeko modu ezin hobea eman dit: kultur-gintzan, herrigintzan... Horrezaz gain, bertsolaritzari esker izan nuen nire emakumetasunaren lehenengo kontzientzia inportantea: gizona ez izatearen ondorioez ohartu nintzen. Ordura arte maila inkontzientean banekien emakumea nintzela, eta bertsotan nire feminitatearen hainbat ezaugarri tapatu ohi nituen. Bertsolaritzak erakusten zidan bazegoela zerbait funtzionatzen ez zuena, bazegoela zerbait imitatzen ez nekiena, oso nabarmena zena, eta imitatuta ere berdin funtzionatzen ez zuena. Jendarteak, sistemak sinetsarazi zidan gizonetzkoen berdina nintzela: eskolan gizonetzkoekin ibili ginen, bertso-eskolan ere bai, lagunartean... eta bazirudien azken hogeitertean emakumeok aukera eta eskubide asko irabazi genituela eta gizonetzkoen aukera berdintasunean geundela, baina ez zen egia, horren azpian geruza asko zeuden, askoz ere sotilagoak zirenak, eta ez zen erraza gezur horiez ohartzea. Orduan oraindik egiteko nengoen, eta bertsolari jardunetik kanpo ez nituen sexuen arteko diferentziak garbi ikusten, baina oholtzan bai, baita oholtzatik jaitsi orduko jendarteko harremanetan ere. Askoz beranduago aurkitu nuen feminismoa, eta nire burua ezagutzeko abiapuntu handiena izan da eta, psikologiarekin batera, erreminta gehien eman dizkidan alorra.

Nola josi da hiruko hori (bertsolaria+emakumea+feminista) zure identitatean?

Kontzientzia hurrenkera horretan etorri zen: lehenengo bertsolari, gero emakume eta gero

feminista; baina, gaur egun, bertsolari atzean jarriko nuke: orain ezin dut bertsolari izan emakume feministaren kontzientziarik gabe. Kontzientzia horrek jarri nau orain bertsotarako nire lekuan. Lehen ez-gizona sentitzen nintzen, eta hortik zer eraiki behar nuen? Falta batetik abiatzen nintzen, besamotzaren beso motzetik. Baina une batean galdetu nion neure buruari: nolakoa zatekeen bertsolaritza gizonek garatu beharrean emakumeek garatu izan balute? Orduan dena aldatu zen. Galdera horrek izugarritzko arnasa eman zidan, ze ordura arte bazirudien bertsolaritzak zen bezalakoa izan behar zuela eta, ez, ez, bertsolaritza bertsolaritzan parte hartu nahi dugun pertsonok nahi dugun bezalakoa izango da. Ni lehengo moldean ez nintzen kabitzen, eta seguru asko nire inguruko beste asko ere ez. Ez ginen konturatu gure esku zegoela horri buelta ematea. Daukadan penarik handiena da ez jakin izana egoeraren analisi psikologiko eta feminista garaiz egiten, ze garaiz egin izan banu, nik eta beste askok noraezean jira-bueltaka igarotako urte asko aurreratuko genituzkeen.

Orain errautsetatik sortzen ari zarela esan liteke, Fenix txoria bezala. Desegin zenuenetik ari zara egiten. Zerk motibatu zaitu berrasmatzeko gogo pizteraino?

Abiapuntua, batez ere, ikastaro batek eman zidan, Donostian izan zen: Emakumeak eta umorea arte eszenikoetan. Hainbat emakumezko sortzaileraren eskutik, arte eszenikoen esparruan umorea egiteko zein bide zeuden aztertzea zen ikastaroaren helburua. Baina ondorioa bertsua zen esparru guztietan, ondorio tristea: emakumeek sortutako umo-

• P E R T S O N A I A •

Ainhoa Agirreazaldeg



Nortasun agiria

Ainhoa Agirreazaldeg Rekondo 1978ko maiatzaren 25ean jaio zen Elgetan. Bergara, Bilbo, Zarautz, Gasteiz, Tafalla eta Iruñea izan ditu bizileku eta, gaur egun, berriro Zarautzen bizi da. Euskal filologia, aleman filologia eta ingeles magisteritza ikasi zituen eta Eibarko Hizkuntza Eskolako irakaslea da lanbidez. Bertsolaria da. Neskatila zela gazte txapelketa gehienak irabazi zituen eta 16 urterako plazaz plaza zebilen bertsolari zailduenekin. Hamar bat urtean bertsogintzaren lehen lerrotik erretiratu eta ikerketa- eta barne-lanei emanda aritu ostean, errautsetatik berpizten ari den bertsolaria da Ainhoa Agirreazaldeg. Berpizterako, bertsolari identitateari emakume eta feminista identitateak gehitu dizkie, eta begirada berria jarri du mikrofonoaren aurrean.



rezko obrak oso gutxi dira, eta horietatik gehienak, eredu maskulinoak imitatu dituztenak. Sorkuntzarako gure buruak ezagutzeak duen garrantziaz jabetu nintzen, kolektibo gisa gure buruak, gure tabuak ezagutzea oinarritzkoa zela ikasi nuen. Azken batean, bertsolaritzan umorea da %60-70, eta umorea egiteko ondo katalogatuta izan behar da zertaz egingo den umorea, zeintzuk diren gure erreferentziak, gure tabuak, benetan inporta zaizkigun gauzak, ezkutatzen ditugunak... Baina emakumeok ez garenez plazan aritu, jendaurrean oso gutxi aritu garenez, gure tabuak zeintzuk ziren ez genekien, bizitzan ere oraindik ibilbidearen heren bat bakarrik eginak, eta ez genekien gure umorea zein zen! Analisi hori ikusi nuen erabaki nuen ezagutu nahi nituela zeintzuk ziren gure tabuak, gure buruari barre egiten ikasi nahi nuela, eta emakume entzuleari bere buruaz barre egiteko konplizitatezko soka bat luzatu nahi niola.

Virginia Imazek bereizten ditu grazia izatea eta komikotasuna. Grazia kulturala eta kanpotik definitua dela dio, eta komikotasuna barne prozesu baten ondorio. Oro har, zergatik iruditzen zaigu emakumeok grazia gutxiago dugula?

Bertsolari grazioso asko ezagutu izan ditugu, baina denak gizonezkoak. Grazia kulturala denez, imitazioz eta mimetismoz ikasten da, eta gu ez ginen graziosoaren rolean eroso sentitzen. Emakumeongandik ez zen grazia-rik espero, eta guk ere gehienetan ez genion gure buruari grazia egiteko bideak urratzea baimentzen, eta saiatu arren inguruko inork ulertu gabeko graziak izaten ziren sarritan. Denok ezagutzen ditugu jaiki orduko, ahoa ireki baino lehen jendea barrez jartzen duten bertsolari batzuk, baina denak dira gizonak. Zer imitatu asko falta zitzaigun, guk gure

burua ez genuen gizon graziosoekin identifikatuta sentitzen, eta emakume graziosorik ez genuen erreferente gisa. Gainera, umoreak lotura zuzena du estereotipoekin eta ertze-kin, eta emakumeok bete ditzakegun estereotipoak oso murrizak dira eta ertzik ez zaigu onartzen: emakumeak bere lekuan egon behar du, erdian, ez goxoegi ez zakarregi, ez beldurtiegi ez ausartegi... Ez geneukan umorea egiteko tarterik! Gerora ikasi dut garrantzitsua ez dela grazia, komikotasuna baizik. Beste kontzeptu bat da, askoz ere barruragokoa, eta norbere buruari barre egiten jakitean du oinarria.

Bertsolarien umorea hierarkikoa izan dela esango zenuke, goitik beherakoa?

Bertsotan binakako lanei temakoak deitu izan zaie eta temako edo enfrentaziozko lan horietan ere normalean umorea ez zen bilatzen pertsonaiak bere buruaz barre egin zezan, baizik eta parekoari barre egin ziezaion. Bertsotako ahalegina parekoari ematea izan da, kolpea jotzea. Gainera, bertsolarien artean onartzen zen ona zela pertsonaia batek besteari ematea ze, zenbat eta kolpe gogorragoa jaso, altxatzen jakiteak askoz balore handiagoa zuen. Baina besteari barre egitea, grazia egitea da, hori ez da komikoa izatea. Komikoa izateko zeure buruari egin behar diozu barre, eta jakina, pertsonaia batek egin diezaioke barre bere buruari, baina are komikoagoa da entzuleek pertsonaiaren barruan pertsona-bertsolaria ikusten badute bere buruari barrez.

"Sentsibilitatea lantzen eta hori bertsotara ekartzen denbora asko behar da", irakurri genion Amets Arzallusi. Azken txapelketa nagusian ahalegin berezia antzeman dizugu alde horretatik. Zein izan da zure lanketa? Norantz egin nahi duzu bertsotan?

Orain dela hiru bat urte konturatu nintzen zein urruti zeuden pertsonaren burua eta sabela, eta bizitza bera, oro har, sabeletik gehiago eta burutik gutxiago bizitzen hasi nintzen. Barruak bertsotan ere hala egiteko eskatzen zidan, eta Gipuzkoako Txapelketan momentu batzuetan sentitu nuen nire buruarekin oso konektatuta ari nintzela bertsotan, aletxo batzuk baino ez ziren izan, baina niretzat esperientzia berria zen. Ez zen burutik, maila arrazionaletik bertsoak eraikitzea, baizik nire oso barrutik, eta bide horri heldu nion. Nire nortasunaren kontzientzia hartzen joan naizenetik eta munduan nire kokapena ulertzen hasi naizenetik gehiago saiatzeko naiz. Ametsek esaten zuen bezala, bide luzea da. Beste arte esparru batzuetan autoreek beren buruari ibilbide tenporal luzeagoak markatzen dizkiete, obra batek idazle baten kasuan bizpahiru urte iraun ditzake, edo gehiago. Baina bertsoa inprobisazioan oinarritzen denez eta bertsolaria astero-astero dagoenez oholatza gainean, sarriegitan aukera gutxi hartzen dugu geure buruari epe luzeagora helburu batzuk markatzeko. Kokapen berri honetan, nire buruari helburuak jartzekotan epe ertain eta luzera jarri behar dizkiodala ikusi dut, pentsatu bizpahiru urte barru ze puntutan egon nahi nukeen bertsotan, eta harantz abiatu. Ikasi dut ezin dudala neure burua saio bakoitzaren bukaeran neurtu, ibilbide horren baitan egin behar dudala balorazioa: orain bi urte non nengoen? Orain non nago?

Aita asko eta ama gutxi izan ditugu bertsolaritzan?

Semeak aitari begira ikasten du, batez ere, gizon izaten, eta alabak, amari begira ikasten du, batez ere, emakume izaten. Eta guk, alde horretatik, ez dugu ez amonarik, ez amarik izan, eta ahizpak ere, gutxi. Horrek guztiak eragin egiten du, ez badaukazu zer imitaturik, zer kopiaturik, ez baitaukazu zer apurturik ere: ereduak puskatzeko ereduak behar ditugu lehenbizi. Zer imitatu baldin badau-

kazu, gutxienez, hari horretan funtzionatzen ikasten duzu, kode hori ikasten duzu, bertsolariaren eta entzulearen arteko komunikazio kodea, baina kode hori gizonen arteko komunikazio kodea zen... Puskatzeko ere hortxe zeukaten. Guk ez geneukan gure arteko koderik publikoki funtzionatzen zuenik. *Emakumera batua* ez zen existitzen.

Zer da emakumera batua?

Hizkuntza batu guztiak erabat zureak izan gabe zure hizkuntza bera darabiltenekin hobeto komunikatzeko sortzen diren hizkuntza berriak direla esango nuke. Batua edo bateratua den hizkuntza berri bat. Beraz, emakumera batua izango litzateke emakume guztiok edo asko elkar ulertzeko kode bat, eta elkar ulertzeko ezinbestekoa da emakumeon ardatza nolabait kokatzea. Baina horretarako gure gaitegia ere ezagutu behar da. Zein dira emakumeon bizitzako etapak? Zein dira gure lorpenak eta gure dramak? Horiek ezagutu eta komunak direla publikoki adostu gabe ez dago emakumera baturik sortzerik. Esaterako, askotan kantatu da gizon ezkonduaz, eta *gizonkera batutik* txiste asko egin dira, publiko orokorrak erraz ulertzeko modukoak. Baina sortkuntzako zein inertzia jar ditzake martxan emakume ezkonduaren papera egin behar duenak? Hori falta zitzaigun, hori garatzeko, gure garaira egokitze gero. Emakume ezkondu desberdinen ahotik kantatzera iristeraino. Emakumera batua existituko balitz, neutrotzat eta unibertsaltzat daukagun gizonkera batua bezalaxe, bertsotarako helduleku garrantzitsua izango genukeen bere garaian. Baina orain ez dut uste lehentasuna emakumera batua sortzea denik, topikoetan oinarritzen diren lengoaiak ez zaizkit interesatzen. Barne-koherentziazko bertsokerarantz egin beharko dugu aurrerantzean emakume eta gizonen.

Bertso eskoletan nola landu daiteke aipatzen ari zaren guztia?



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com

Arbelaitz Jatetxea

Clown ikastaroetan ikasten den aurreneko gauza pertsona bakoitzaren barruko clowna bilatzea da. Zein da zure clowna?, da aurreneko galdera. Nolakoa da? Zeri egiten dio barre? Ze ahulune ditu? Nola jokutzen du?... Egia da clown eskola gehienak helduentzakoak direla, baina kuriosoa da, guk ez daukagu helduen bertso eskolarik kontzepzio hauetan. Gure helduen bertso eskoletan haurren bertso eskoletan egiten den antzeko zerbait egiten da, bertsolaria teknikarekin formatzen jarraitzen dugu, ez da izaeraren baitako formazio pertsonaliki egiten. Inoiz ez dugu galdetzen “zein da zure barruko bertsolaria?”, eta artista izateko eta, are gehiago, komiko izateko norbere burua ondo ezagutu beharra dago eta, clownek esate baterako, zenbat eta desberdinago izan besteengandik, orduan eta zuku gehiago ateratzen diote beren komikotasunari. Batzuentzat ahuldadea izan daitekeena, esaterako, gizonezko txiki bat... indargune bihurtzen dute. Zenbat eta ahulune gehiago bilatu, orduan eta aberatsagoa da clowna. Ahuldade horiei egiten baitiezu barre. Nik uste horretatik zer ikasia badaukagula: interesgarria izango litzateke pertsona diferenteek beren ahuldadeak landu eta horiei indarra eta zuku ateratzea oholtzan. Eta seguru nago publikoa ere askoz identifikatuago sentituko litzatekeela. Nik uste inertzia eta kanpotik ezarri dizkiguten identitateak dese-raiki behar ditugula.

Bertsolaritzaren inertzia aipatu izan dituzu maiz. Zein inertzia azpimarratuko zenituzke?

Alde batetik, arrazoiketa potoloaren inertzia egon da. Beste inertzia bat umore burlatia izan daiteke, bestearen kontura edo besteari barre egitea. Eta hirugarren inertzia garrantzitsua bertsotarako burua bakarrik erabiltzea izan da. Bazirudien bertsoa ingenio kontua bakarrik zela, burutik bakarrik landu beharreko zerbait, eta seguru asko emakume gehienok ez gara hiru inertzia horietan heziak eta trebatuak izan. Orain arte landu dugun bertsokera *bukaerako arrazoian* dago oinarritua. Arrazoian, hitzak berak esaten du. Sistema horretan arrazoia izatea da inportantea. Bertso eskoletako bertsoa irakasteko teknika aztertuko bagenu makina baten funtzionamenduari buruz ari garela dirudi:

OFF THE RECORD

Proporzioan

Proporzioan distantzia bera omen dugu denok burutik bihotzera; bihotzetik sabelera. Proporzioan ez omen ditugu denok berdin erabiltzen burua, sabela eta bihotza. Ingelesak bihotzez ikasten dituztenak (*by heart*), buruz ikasten ditugu guk. Nondik ateratzen ditugu hitzak? Nondik, ahotsa? Ezpainetarako bidea burutik, bihotzetik ala sabeletik hasten dugu? Zein noranzkotan? Bidea zuzena, sigi-sagakoa ala kiribila da? Behetik gorako bidea proposatzen du Ainhoa Agirreazaldegik, goragale kreatiboa: tripako minak bihotzerrea eta bihotzerreak buruhaustea sendatuko dizkigulakoan. Orekatuagoak izango ginatekeelakoan, proporzioan.



bukaera pentsatu, oinak bilatu... Bertso bat=arrazoi bat esaten ziguten. Ez zen bertso bat=sentimendu bat, ez zen bertso bat=begirada bat... Bertso bat=arrazoi bat zen, batez ere, oholtza gaineko bertsolaritza gartu zenean. Guri hala erakutsi ziguten: Egañaren bertsokera, bertsoaldian hiru arrazoi botatzea zela. Makina baten funtzionamenduari traza hartzen nion nik bertsoan egiteko modu horri, eta kolore gutxi ikusten nion.

Jakintsuak ilargia seinalatzean, inozoak hatzari begiratzen dio. Maialen Lujanbioren buruan dago orain Euskal Herriko txapela. Txapela hatza bada, zer da seinalatzen duena?

Bide bat. Egindako ibilbidea garbier antzematen zaion bertsolaria dela esango nuke, gaztetxotako Maialenen bertsokeratik oraingo Maialenen bertsokerara dagoen bidea bihurria eta pauso askokoa dela iruditzen zait. Niretzat oso gauza funtsezkoa egin du, gizarte honetan erakusten ez diguten gauza bat: bere buruari sinetsaraztea ordura arte zegoena ez zela derri-gor gerora egon behar duena. Bertsolaritzaren tradizioetik hainbat gauza ikasi dituela uste dut, baina bere buruari baimena eman dio ikasitako zenbait gauza ateratzeko, bere barrua husteko, eta berriz betetzeko beretzat nahi zituen ezaugarriekin. Horretarako lan handia, sotila eta konstantea egin behar da, eta ez ditu emaitzak gaurtik biharrera ematen, hori ez da bertso eskolara joan eta hiru hilabetean ikasten. Askoz ere integralagoa

da prozesua, bide luzea da, eta ez dakizu zein emaitza konkretu emango dituen, baina emaitzak azkenerako ikusi egiten dira bertsokeran, islatu egiten dira. Ez da zerbait konkretua, nortasuna da, norberaren digestioa, mundua ulertzeko modua, sabeletik pasatutakoa, norbere goxotasunetik, norbere amorrueetatik... Azkenerako, bertso bateko hitz-aukeraketan agertuko dena, baita hitzak lotzeko moduan ere. Nik Maialeni, kantatzen duenean, digestio hori sumatzen diot, eta garrantzitsuena da hustu egin duela, eta denbora bat eman diola bere buruari husteko eta betetzeko. ■

argia.com Bertsolaritzaz, feminismoaz eta beste hainbat kontuz luze aritu da Agirreazaldeg. Gure webgunean duzu irakurgai bertso luzea.


Naiürobütarra ^{rekin} bidaia jolas

"Nairobitarra: mundua
ezagutzeko jolasa" k
tokian tokiko
bitxikeriak
ezagutzeko aukera
eskaintzen dizu.

33 €

Harpidedunek:
-15%

Aukeratu
kontinentea,
ibilbidea, bota dadoa
eta ekin bidaiari.



8 urtetik
gorakoentzat

eskaerak

943 37 15 45 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan

 **argia**

• Angustias Bertomeu •

«Kontua ez da informatikan adituak sortzea, baizik, komunikazioa sustatzea»

Angustias Bertomeu (Alacant, Herrialde Katalanak) enpresari eta E-mujeres webgunearen sortzaileak genero ikuspegitik aztertzen ditu Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT). Emakumeek Internetekin eta oro har ordenagailuekin zer nolako harremana duten azaldu digu.

JON TORNER

Duela hamar urte sortu zenuten E-mujeres (lehenago E-leusis.net) webgunea. Zein beharri erantzun nahi zenioten?

1997-98an oso pertsona gutxi zuten Interneteko konexioa, baina ordurako sumatzen hasia nintzen sarearekin ez nintzela identifikatzen. Ikusten nuen emakumeak lurrean –bizitzan– egiten ari zirena sarera igo beharra zegoela, protagonista bihurtu behar zirela, ez zitezen tratatu zerbaiten subjektu bezala, objektu bezala baizik. Gure ahotsa entzunarazteko, hitzaren banaketa bermatzen zuen softwarea garatu genuen.

Zer da software hori?

Erreminta informatikoa da. Lehen beste balio bat zuen, gaur egun mundu guztiak baitu horrelako tresna bat. 1996an orrialde estatiko-

ak zeuden, eta inork gutxi zekien zer zen eduki kudeatzaile bat. Gure esperientzia guk geuk igo nahi genuen sarera, webmaster baten menpe egon behar izan gabe. Editatzeko aukera ataria martxan jarri genuen bost lagunek eta gainerako pertsonak izatea nahi genuen. Hori lortzeko, 1998an gure harreman-printzipiotara egokitutako softwarea sortu genuen, eskuz programatuta.

Software feminista deitzea gehitxo al da?

Erreminta bat da; patronalaren ala feminista talde baten esku jar dezakezu. Ematen diozun erabilerak baldintzatuko du zer izaera hartuko duen. Horrez gain, formazio softwarea sortu dugu. Maiz galdetu didate ea software feminista den. Software zentzuduna dela erantzuten dut: euren behar eta desioetatik abiatuta ira-



kasten diegu emakumeei. Zentzu horretan bada feminista.

Eta zeintzuk dira behar horiek?

IKTen espazio berriak, ezagutu edo egin nahi dituzten gauzen arabera ikastea. Adibide bat jarriko dizut, agian oso muturrekoa dena, baina egoera azaltzeko balio duena. Formazio ikastaroetan maiz erabiltzen dira emakumeen esparrutik at dauden adibideak: “Sar zaitezte Real Madrilen webgunean eta egin klik hemen”... Emakumeek euren hurbileko ingurunean sartu nahi dute: euren herrietan, etxetan, saltokietan. Hori edukiari dagokionez.

Formazioa emateko moduak ere badu zerkusia. Kontua ez da informatikan adituak sortzea, komunikazioa sustatzea baizik. Informatika irakastea akats larria da. Etxean telefonoa kontratatu zenutenean, familiako inor ez zen telekomunikazio ingeniari egin. Telefono konpainiako langilea etorri, nola erabili azaldu eta ospa egingo zuen. Bada, informatika irakasten duten askok, erabiltzaileak sistema ingeniari bilakatzea nahi dute. HTML, IP, RAM... Ikastaro hauek ikuspegi tekniko hutsetik ematen dira, eta horrek ez du ia interesik oinarritzko erabiltzailearentzat. Telefono mugikorrak nola funtzionatzen duen jakin ez arren, ziur oinarritzko funtzioak azkar ikasi zenituela. “E-posta zertarako behar dut? Nola funtzionatzen du?”; galdera horiei erantzutea da inportanteena.

“Zertarako” hori, diferente ikusten dute gizonak eta emakumeek?

Bai. Orokortzea arriskutsua bada ere, emakumeek harreman oso estua izan ohi dugu praktikotasunarekin, eginkizun pilaketagatik. Emakume bati zerbait azaltzean, zera esango dizut: “Oso interesgarria da, baina zertarako balio du?”. “Zertarako” horri erantzunez gero, aliatu bat lortuko duzu. Bizitza praktikoaan ekarpenik egiten ez badio, alboratu egingo du.

Gure egoera pertsonal edo laborala nolako den, halako interesak izango ditugu, eta orde-



“Gurea software zentzuduna dela esan ohi dut: euren behar eta desioetatik abiatuta irakasten diegu emakumeei. Zentzu horretan bada feminista”.

nagailuek ez dute erabileraren arabera segmentaturiko eskaintza ematen; dibertsifikazio ezaren eredu ditugu. Nire ordenagailua eta telekomunikazio ingeniari batena berdina dira. Programa desberdinak txertatuko ditugu, baina euskarri berdinekin: teklatura, pantaila, arratoia... Emakumeek, oro har, hasierako distantzia hori gainditzean, harreman ona dute makinarekin, eginkizun komunikatiboak eskaintzen dizkielako. Sozialki, taldearen komunikazioa guri egokitu izan zaigu. Ziurrenik zure amak deitzen die seme-alabei, koinatari, lagunei...

Gure tailer antiteknofofikoetan erakusten dugu makina ez dela arrotza, ez dela gure arierioa, izorratu arren ez dela ezer gertatzen, *reset* egin eta listo. Gizonak telebista edota bideoak beldurrik gabe erabiltzen dituzte, eta hala behar dute egin emakumeek. Etxetresna elektrikoak dira, mikrouhin-labea, garbigailua edo hozkailua bezala. Hain berea da ordenagailua, hozkailua beste.

Ez al dute ba sentitzen ordenagailua beraiena dela?

Adibide bat jarriko dizut. Emakumeei galdeitzen diegunean etxean ordenagailurik badaukaten, baietz diote. Aldiz, “ordenagailurik baduzu?” galderari ezetz erantzuten diote.

Pertsonek (berezik emakumeek) teknofobia izateko arrazoietakoa bat hizkuntza tekni-

**UROLA
JATETXEA**

FERMIN CALBETON, 20 • 20003 DONOSTIA
Telf: 943423424 • Fax: 943 424 424 • urola@restauranteurola.com
www.restauranteurola.com

koa da. IP-ari zergatik ez diote deitzen telefono helbidea? Zergatik ez digute esaten RAM memoria ordenagailuaren memoria dela, edo "link" eta "lotura" gauza bera direla? Guk 400 terminoko glosario desmitifikatzailea egin dugu: gaztelaniaz jaso ditugu, bakoitzari dago-kion azalpen laburrekin.

Gizonek, formazioz eta genero rolagatik, makinen aurrean desberdin jokatzen dute. Autoa geldituz gero, kapota irekiko dute. Informaziorik ez izan arren, jarrera daukate, guk beste gauza batzuetarako dugun moduan. Makinei diferente begiratzen diegu. Guri ez dizkigute erreminta kuxak eta kamioiak oparitzen. Ez da zerbait genetikoa.

Txikiak direnean, neska zein mutil koxkorek IKTekiko jarrera bera dute, baina 11 urte-ekin edo, neska askok atzera egiten dute. Interneteko eta kontsoletako jokoak maskulinoak dira, gizontasun eredu oso txarrekoak gainera: biolentzia, prostituzioa, autoak, drogak eta dirua. Neskak ez dira eroso sentitzen. Salaketa asko egin direnez, bestelako jokoak atera dira, Wii kontsolarako esaterako, edo gustuko harreman-sarea osatzeko aukera ematen duten Sims-ak. Baina konpainia estatubatuar handiak ez dira konturatzen, edo ez dute konturatu nahi: beraientzat, neskentzako informatika egitea da kontsola arrosak ateratzea, edo norberaren maskota nola zaindu erakusten duten jokoak sortzea; horrek aspertu egiten ditu.

Eginkizun komunikatiboez hitz egin duzu lehen, harreman sareaz orain...

Emakumeak ongizatezko estatuaren eta familiaren arteko zubi dira. Azalduz gero Internetez posible dela administrazioarekin (hezkuntza, osasuna...) egin beharrekoak azkartzea, lerroan bi ordu itxaron beharrean, beste modu batera ikusiko dute.

Emakume zaharragoen kasuan argi ikusten da: komunikazioa da interes-gunea. Gure tailerretan, IKTe-tara memoria pertsonaletik abiatuta gerturatzen irakasten diegu. Etxean dituzten argazkiak ekartzeko eskatzen diegu, euren bizitzan oinarritutako argazki bildumak, bideoak eta bestelako multimedia edukiak sortzeko. Helburua da zulo digitala gainditzea.

Oraindik badago zulo hori?

Bai. Hiru zulo mota daude: sarbideari dago-kiona, Interneteko oinarritzko erabilpena eta erabilpen aurreratuena.

Aldea murrizten ari den arren, oraindik gizonezko gehiago sartzen dira Internetera emakumezkoak baino. Europa osoan gertatzen da hori.

Interneteko oinarritzko erabilpenen kasuan, gizonezkoak dira nagusi softwarea deskargatzen, salerosketak egiten edota egunkari zein aldizkariak irakurtzen; aldiz, osasunarekin, lanarekin eta formazioarekin lotutako zerbitzuak gehiago erabiltzen dituzte emakumezkoek.

Erabilpen aurreratueta aldea are handiagoa da. Internet bidezko telefono deiak; txat eta foroetara mezuak; musika eta filmak deskargatzea; podcast zerbitzuak; bideo-jokoak deskargatzea edo sarean jokatzea... Gizonezkoak nagusi dira. Deskargak aisialdiarekin loturik daude, ez dira eguneroko arazoak konpontzen dituzten kontuak, eta aisialdiaren mundua gizonen esparruari dagokio. Hori bai, zinema gustuko duen eta denbora libre gehiago daukan emakumeak bideoa programatzen azkar ikasiko du. Interesen arabera da.

Kosta egiten al da ikustea zer irabaz daitekeen Interneten emakumearen presentzia indartuz?

Emakumearen ikusezintasuna sartzen da hor. Kosta egiten da gure obrak aurkitzea: liburuak, filmak... Ateratzen direnean liburu

salduenen zerrendak, gehienak gizonezkoenak dira. Ikusezintasuna oso gogorra da, ikusten ez dena ez da existitzen. Zaila da gure obrak azaleratzea. Interneten ez dago horien aipurik, gune espezializatueta jo behar da. Ikusgarri bihurtu behar gara, akzio positiboak bultzatuz.

Eta zuek optimistak al zarete?

Nire optimismo historikoarekin erantzungo dizut. Umea nintzenetik aldaketa izugarri handiak eman dira. Goizero esaten diot hori nire buruari. Gauza asko falta dira egiteko, baina... 1977an Banca-ja-ra joan eta ezin izan nuen kontua zabaldu, aitaren baimena behar bainuen. Berdin pasaporte egiteko, edo gaueko hamabiak arte ateratzeko... Juridiko-ki eskubide berdintasuna dago orain. Urte gutxian garrantzi handiko aldaketak eman dira. Badaude aurrera jarraitzeko motiboak.

Txanponaren beste aurpegia ez da horren gozoa. Lehen desberdintasuna hain zen handia, ezen emakumeek ez zuten erresistentziarik jartzen. Orain garrasi egin dezake, ezetz esaten du. Erantzun gisa, gizon batzuek indarkeria erabiltzen dute. Gizon bera da, baina lehen ez zeukan biolentzia erabili beharrik, emakumea otzanagoa baitzen. ■

Zulo digitalaren inguruko azalpen eta datuak, Orange Fundazioak plazaratutako eEspaña 09 txostenean bilduak (PDF formatuan): <http://ttiki.com/11539>

"Euskaldunak arras abegikorrak dira
ARROTZAREKIN; aski lana baitute elkar
hostiatzen" CÉNAC MONCAUT

NABAI D TOLOSA

IKUSIKO DUZUE
OPORROSTEAN!

Honetakoan gauriz
ITZULIKO HAIZ
NEPALETIK bederen

ERREGE
NAHI DUTIZAN
ERREGEREN
ORDE !!!



Batasuna
deitu duzeela?

EZ jakin zer den OKERRENA: GERLAREN ARBITA-
RATZEA, INDEPENDENTEEN BARTERTZEA, ENORATZEA
EMIRRA ESPAINOLEKIN ITAUNDUA dela...

Marroi pixka bat?

Lehenengo argazkia mural baten kronika da. Goizeko 8:30ak, asteburua, Errenterian. Bi emakume kalean, tresnak eskuan, Emakumeen Mundu Martxarako murala margotzeko prest. Ertzaintzaren hiru auto agertu dira berehala, baimen eskean. “Udalaren baimena dugu, baina lanean gaude eta ez dizut erakutsiko”. “Identifikazioa, orduan”. “Ezetz, ez naiz eskaileratik jaitsiko, lanean nagoela esan dizut, prentsa saltzaileari egunero eskatzen diozu lizentzia?”. Handik gutxira, herriko udaltzaingoa: “Zer, etorri zaizkizue, ezta?”. “Baietz, papera etxean ahaztu zaigula. Ondo dakizue baimena dugula”. “Marroi pixka bat hemen?”. “Bai, eta hemen beltza”. Bizitza artelan bilakatu. Hori lortzen dugu emakume askok eta askok mundu osoan zehar gure eguneroko lanarekin. Utz diezagutela erabakitzen gure bizitzekin eta gorputzekin egin nahi duguna. Hori bederen.

Bigarren argazkiak tximuekin zerikusia dauka. Gizon bat atxilotua izan da Gipuzkoako errepede nagusi batean, autoan lau tximu zeramatzala, kirol poltsa batean, osasun egoera txarrean. Egunkarian kaio la batean agertu dira lau tximuak. Bederratz bat urte nituenean, ez dakit zein kirolariren eraginez, tximu bat erosteko eskatu nien gurasoei, sorbaldan eramaten den txiki horietako bat. Jakina, ez zidaten erosi, garestiegiak ziren gainera.

Hirugarren argazkiak Iruñeraino narama. Iazko uztailean Falange y Tradición talde ultraeskuindarra Defentsa Ministerioak Iruñean duen egoitzan bildu zen. Joan den abenduan Iruñean izan nintzen aspaldiko lagun batekin, larunbata zen. Azoka eguna San José plazan. Postu batean geratu ginen, antigoaleko argazki kamerei so. Zur eta lur geratu ere bai bitrina



DANI BLANCO

Ixier Rozas

Urteiza

Padrón

batean esbastikak eta nazien ikurrak ikusterakoan. Ez bat, ezta bi ere: mahai oso bat nazien ikurrekin beteta. Jende dezente igaro zen bertatik, inongo harridurarik gabe, larunbateroko kontua balitz bezala. Erosleak ere izan ziren. Eta han ez zen deus gertatu.

Nafarroako Unibertsitatean ikasteak sena moduko bat eman zidan muturreko eskuindarrak atzemateko, baita metro batzuetara ere. Orrazkera, arropa, begirada opakua, gorputzik ez dutela dirudi. Falangistekin zailagoa zait, beren *looka* hibridoagoa baita. Beharbada horregatik, beren *looka* ez delako hain finkoa, ez dituzte kaiolatzen. Webgunea dute beren ekintzen berri xehe-tasunez emateko, hauteskundeetara aurkeztu dira, egoitzak dituzte. Bistan da: kaiola batzuentzat beti prest, besteentzat ordea ez. Esan beharrik ez dago Falangekoak fetuen defendatzaile sutsuak direla. Ume berriak munduratu behar dituzte beren tropelak ziurtatzeko.

Azken argazkia. Peter Friedlen *Bilbao Song* dokumentalaren harira mintzagai izan da berriro ere Errekalde aretoa. Artea esanahi bilaketa bat da, eta Friedlenek bere erabaki estetikoak eta etikoak hartu ditu euskal historiaren erretratu kritikoa egiterakoan. Hemen ez dira artista baten kontzeptua eta irizpideak ere errespetatzen. Hemen oasi moduko bat eraiki nahi da, non gizarte osasuntsu batean berezkoak diren tentsioak *lifting* etengabe batean ezkutatu nahi diren,

power balance pultserak medio. Berriro diot, subjektibitate bereziak eta singularrak behar dira, identitate finkoetan oinarrituta ez daudenak. Subjektibitatea laborategi bat da, non unibertso batzuk sortzen diren eta beste batzuk, berriz, diluitu. Transgenerazionalak. Transideologikoak. Eta transgenerikoak. ■

Hemen ez dira artista baten kontzeptua eta irizpideak ere errespetatzen. Hemen oasi moduko bat eraiki nahi da, non gizarte osasuntsu batean berezkoak diren tentsioak *lifting* etengabe batean ezkutatu nahi diren, *power balance* pultserak medio

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Kartoizko munduak

Munduko presidenterik onena zelakoan hil zen. Agintetik kendu, epaitu eta fusilatu, azkar egin zuten guztia, urteetan gelditua zirudiena bat-batean zurrumbilo eroan sartuta.

Nicolae Ceaucescuk ez zuen egoera hura ulertzen, Errumaniaren alde horrenbeste egin eta gero, bere burua hain gutxietsia ikustea. Errumaniarrak ote ziren galdetu zien epailei. Nola zitekeen herrikideak izanda bere kontra halako gauzak esatea? Gertatzen zena ulertu gabe eman zituen azkenengo orduak, hura guztia egia ezin eta ames-gaiztoren bat zela sinetsita. Edo, bestela, mundua zoratu zela zeharo.

Ipuineko erregearen moduan, Ceaucescu biluzik zegoen, baina ordura arte inor ez zen aurpegiatzen ausartu. Bukatu zen Errumania birtuala, bere begiek bakarrik ikusten zutena, komunismoaren paradisua lurrean. Edonora bisitan joanda, berdin unibertsitatera edo meategietara, kartoizko mundua prestatzen zioten. Baina egun batean bukatu ziren txaloak, desagertu lausengari koadrila, eta orduan, Ceaucescuk ez zuen ezer ulertu.

Munduaren beste puntan, Ugandan, Idi Amin presidenteak ere, bere agintaldia hain txarra eta gaiztoa izan zela uste gabe joan zen ihesi. Ez zuen menpean zituenen astake-



Denok beharko genuke egia
esaleren bat, ARGIArako idatzitako
artikuluok txarrak direla esateko,
adibidez. Agintarien kasuan
behar-beharrezkoa litzateke hori



ria askoren berri izan azkenera arte. Sarri gertatzen da hori, gorengoen esanetara dau-den zuritzaileek azken muturreraino eramaten dituztela gauzak. Oposizioakoak atxilotzeko agindu, eta Aminen poliziak torturatu eta hil, eskatutakoa baino gehiago, badaezpada ere. Ederki azaltzen da hori *Eskoziako azken erregea* pelikulan.

Ceaucescuk eta Idi Aminen, beste agintari askok bezala, arazo berdina izan zuten: inor ez inguruan egiak aurpegiatzeko. Demokrazia zein diktadore, eskuindar edo ezkertiar, koipe emailez babesturik egoten dira boteredunak, kaletik baino zerutik hurbi-lago. Denok beharko genuke egia esaleren bat, ARGIArako idatzitako artikuluok txarrak direla esateko, adibidez. Agintarien kasuan behar-beharrezkoa litzateke hori, premiazkoa, egia esale profesionalak kontratatu beharko litzukete.

Harrokeria uxatu eta oinak lurrean edukitzeko modu bat litzateke, kafeak 0,80 zentimo balio duela esanez lotsagarri ez gelditze-ko bada ere.

Gurera etorritz, Euskal Herriaren izenean berba egiten duten kaputxadun pistoladunei egia aurpegiatu diete, behingoz, orain arte amen esan dietenek. Horixe dirudi behintzat. Egia adierazteak libre egingo ditu. Hala espero, guztion onerako. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Dugu xede, beharrezko GPSa. Usurbilek erakutsi digu bidea, Hernanik eta Oiartzunek ibili nahi dutena. Etsaiak ere ez dira gutxi, eta azkarrak gure zaborraz industria egitera doazen horiek. Sortzen dugun horrek lotsatzen gaitu eta ezkutuan nahi dugu, miseriak disimulatzen ikasten bizia igarotzen dugun eran. Hor ere metodologia erraldoia eraikia dugun bezala, dekorazioa agerian kaka ideologikoak ezkutuan, hemen ere nahiko genuke zaborra auzoan. Hamaika egun eta hamaika hilabete igaro dituzte Jon Anzari eginikoa bertsio ezkutatzaille batean zuritze-

Zero zabor

ko, jendartearen gizakiak erabateko sinestun lerroak baikinaren hartuta, guztiok ere kakaegileak ez baikinaren bezala munduratzear bat egiten ikasi ez bagenu legez. Auzo zapaltzaileek, berriz ere etxearen erdian egin dira libratu eta beren zaborraren gainean haizagailua paratuz alde egin, sunda gurean zabalduz. Hemen norberak berea ezagutzen du eta inor ez du bere urrinak arrotzen. Eta Jon Anzari eginikoak aspaldi usaintzen dugunaren antza du, arrotza izateagatik etxekoarazten ikaragarritzko estrategiaren uzta dena. Zirineriari eutsi ezinean dabilta. Gurean zero zabor eta konposta. ■

Kontra(k)tu(ra) soziala

Jaio nintzenean, inolako baimenik eskatu gabe, norbaitek –zerbaitek– hitzarmen bat sinarazi zidan jendarte-ko kide izateko.

Hitzarmen guztiak bezala, honek ere –nik ez nekien arren– bi alde zituen: batetik, gizabanakoa, berez askea, baina jendartean bizitzeko norberaren nahimenari mugak jar-
tzeko prest; bestetik, antolakuntza sozialaren egitura, giza-abere horri babestu, eta lagun-
tzeko prest. Hitzarmen berezi honek, gaine-
ra, bi atal zituen, ustez orekatuak: alde batetik, eskubideak zeuden, oinarritzko ahalmen batzuk; bestetik, betebeharrak, gaitasun horien truke bete beharreko baldintzak.

Jaiotzerakoan nik ez nekien denok sina-
tzen genuenik hitzarmen hau. Are gehiago, nik ez nekien denok derrigorrez sinatu behar izaten genuenik. Horregatik, pozik bizi izan nintzen haurtzaroan; eta ez nuen, garaiz, beharrezko epean, alegaziorik egin.

Behin batean, bospasei urte nituela, irakasleak esan zigun kanpoko norbait zetorrela, eta hari gazteleraz erantzun behar geniola. Guk ez genekien gaztele-
raz egiten, eta beldurtuta igaro genuen goiz osoa. Handik gutxira, berriz, berdez jantzitako gizon armatuek eskola –ikasto-
la– itxi ziguten, eta oporrak izan genituen, gurasoek, garaiko agintari ez-demokrati-
koekin, egoera zuzendu zuten arte.

Harrigarria dirudien arren, berrogeita bost urte geroago gogoan ditut egun haiek: ikuskari



DANI BLANCO

ilehori herren haren aurpegia, eta pikoleta lodikotea, pistola eskuan, gelako leihotik igarotzen. Nagusitzerakoan, konturatu nin-
tzen, urteetako esperientziaz, eskubideak gehienetan lor ezinak zirela, baliabide falta-
gatik, egiturak zurruneak zirelako, edo baita, tokian tokiko funtzionario nahiz ordezkariak –azken hauek, nolabait geuk aukeratutakoak izan arren–, ez zutelako egoerak aldatzeko gogorik, ez asmorik.

Eskubideak urratu izan zaizkidala suma-
tu izan dudanean –dena esan behar– ez naiz isilik gelditu, baina ez dut inoiz erantzukizuna zuena aurkitzerik lortu, eta ez dut lortu zanpatutakoaren erantzukizuna zuenak ordaintzerik.

Eta konturatu naiz, ostera, betebeharrak, guztiak, betearazten dizkidatela. Eta betetzen ez baditut mehatxuak, isunak, kartzela edo arazo larriak izan ditza-
kedala, egitura “babesle” –indartsu– horren aldetik. Beraz, niretzat behintzat, kontratu hori kontraktura mingarria bihurtu zaidala aspalditik, sentitzen dut.

Horregatik, azkenaldian, inposatu diguten lehendakari bati, hedabideetan, zapaldu duen jendartearekin –burua legiti-
matu nahian edo– kontratu soziala berri nahi duela entzun diodanean, esan dut, “Nik ere bai!”. Nik kontratu berria nahi dut.

Baina ez dut uste gauza bera esan arren, gauza bera ulertu dugunik. Nire zoritxarrerako. ■

« Inposatu diguten

lehendakariari

kontratu soziala

berri nahi duela

entzun diodanean,

esan dut,

«Nik ere bai!»



TXANDAN

Amatño



Saudi Arabia-ko Industria ministroari

galdetu diote zein ote bere etorkizun-
estrategia. Baita azkar erantzun ere: “Energia asko behar izango duen indus-
tria motaren aldeko apustua”. Mendealde osoak aha-
lik eta enargiarik gutxieneko industria amesten duen artean, Arabiak justu bestelakoa du helburu. Arrazoia guztiz ulargarria da, alegia: energia gero eta garestia-
goa izango denez gero eta erreserbarik handienak ara-
biar penintsulan bertan egon, saudi industria izango da lehiakorrena energia asko behar duten sektoreetan.

Ontsa lehiatzeko bidea

Beste muturrean, Eus-
kal Autonomia Erkide-
goa da –Luxenburgo,

Malta eta Zipreren ondotik– kanpoko energia-menpe-
kotasunik handiena duten europar herrialdeetakoak. Eta industria gure kontsumoaren %46,5 da, EB-27an %27,6 den artean.

Beraz, lehiakorrek izaten jarraitzekotan, energia urriago behar izango duen industriaren apustua egi-
teaz gainera, guk geuk izan beharko dugu –jarreraz,
prestakuntzaz eta ezagutzaz– gero eta lehiakorragoak, oinarritzko energia kanpotik ekartzen jarraitu beharko baitugu luzaro. ■

ZIRTA
Patxi Zuluizarreta
IDAZLEA

Coelho

Beti pizgarri zaidan Agustín Fdez. Mallori behin irakurri nion gero eta gutxiago direla liluratzen gaituzten liburuak, eta liluramendua gaur egun bereziki pantailetatik datorkigula. Alabaina, azken asteotan bat, ez baina bi liburuk xarmatu naute: Daniel Kehlmann-en *Fuma* eta Fermin Etxegoienen *Autokarabana*, biak ere nobelak —lehena bikain lo-r-tutako bederrazi episodioz osatua—, eta biek ala biek ere Paulo Coelho idazlea larrutzen dutenak —nahiz eta lehenean Miguel Auristos Blanco ezizenarekin agertu.

“Denek kritikatzten dituzte funtzionarioak, burokratak, bulegari txepelak eta paperezko tigreak. Eta zer gara ba, hori baino!? Enplegatu bakoitzak anarkista jotzen du bere burua, artista, izpiritu libre, bere eromena mozorroturik ez arau ez obligaziorik eza gutzen ez duena. Gutako bakoitzari noizbait zerua agindu ziguten eta ez dugu onartu nahi aspaldidanik antzik nahi ez genduen pertsona horietxen kategorian gaudela, guregan ez dela ezer apartekorik, eta besteengandik desberdinak garela pentsatze hutsak hain zuzen besteen berdin-berdinak garela adierazten duela”. *Fuma* liburuak hitzak dira, ezin egokiagoak *Autokarabanako* aita dibortziatua deskribatzeko, “dudako guraso, dudako kooperatibista eta dudako euskaldun”, zeina Coelho irakurtzen saiatu arren, ezin izan baitu hamargarren orrialdetik pasa, eta antzera mintzo dena: “Bizimodu modernoaren patu puta da, bizitza bakarra bizi dugun arren kontrakoa sinestarazten zaigulako, hamaika batera bizi genitzakeela. Bi aukerak uztartzea ezinezkoa denez, konturatu orduko gure adineko kristo guttia frustraturik eta krisialdian sentitzen da, ezta?”.

Irudipena dut *Autokarabana* nobelaren analisi kaustiko, gordin eta maleziatsuarekin hobeki uler dezakegula nor —zertan— garen ezein filosofia



DANI BLANCO

« Agustín Fdez. Mallori ustetan,
literatura azken plazer
burgesa litzateke, opera
edo pipan erretzea
bezalakoxea, eta hutsala
gizartean duen eragina



irudia:
Antton Olariaga

edo soziologia liburutan baino: familia, hezkuntza, borroka armatua, euskara planak, prentsa, musika —tamala literatura bazter uztea...— eta, hori guztia “taldegin-tza zentzua gorde duen giza talde moderno” bakarraren testuinguruan, hau da, kooperatibismoan. Irakurri berrian, gurean Saizarbitoria eta Zaldia datozkit gogora, edota Houellebecq eta Kureishi kanpoan. Erreferentzia eta kritika latz

horiekin Euskadi Saria irabazteko moduko liburua da —Lopez lehendakariarentzat zuribide eta guzti: funtsean, euskaldun hiztunok ere ezin dugu euskararekin...—, baldin eta epaimahaikoen beti zelatan egon ohi den filologoa liburuaren estiloarekin eta akats tipografiko-ortografiko ugariekin eskandalizatuko ez balitz; egiaz, euskaraz ere trakets dabilen protagonista narratzaileak ikastolan ikasi zuen arrebarren laguntza beharko du idazketarako, frogan jartzeraino norberarengan ere zein nagusitzen den: filologoa edo literaturazalea... Guztiarekin, benetan

esaldi antologikoak daude, hala nola euskaldunoi buruzko hau: “Pirinioetako bi aldeetan narru polarra janzten duen Herria”.

Agustín Fdez. Mallori ustetan, literatura azken plazer burgesa litzateke, opera edo pipan erretzea bezalakoxea, eta hutsala gizartean duen eragina. “Pertsona alda dezake —ez da gutxi—, baina besterik gabe. Paris Hilton-en azken adierazpenek azken urteko nobela guztiek baino eragin handiagoa dute”. Nik, bi nobela hauen ozpina apur bat ezti-tzearen, Coelho ere gaineratuko nuke, eta *El Semanalen* behin idatzitako “*De aquí a cincuenta años...*” artikuluko iragarpena nabarmenduko: “50 urte barru Espainia bisitatzeko duenak ikusiko du Katalunian katalanez baino ez dutela hitz egingo, eta Euskal Herrian dena euskaraz idatzia egongo dela”. ■

Eraikuntzari jarriak

I

Eraikuntza den mundu
ilun honetara,
batzuk oharkabea
ailegatu gara.
Euroa onartzean
Jaungoiko gisara,
bere premisa dator
guztion baitara:
zer erosirik dela
zer saldurik bada.



LANDER ARBELAITZ

II

Hamaika arkitekto,
aparejadore,
ingeniari mota
eta promotore
dotrina aplikatzen
dabiltza dotore:
ahal den gutxien eman,
ahal den dena gorde.
Eta norberarentzat
baldin bada hobe...

III

Lursail huts erdi ahaztu
bat izan zena lehen
negozioa denez
eraiki ondoren,
hara eraikuntzaren
tranpa non dagoen:
guztiek irabazten
dutenez nabarmen,
begi-bistakoa da
zeinek galtzen duen...

IV

Nahiz beti ez dabilen
hitzetik hortzera,
agintariek duten
ardura hortxe da.
Kulparik ez dutenek
ohi duten antzera,
lehen harria ez dute
botatzen, bai zera!
Obraro baitoaz lehen
harria jartzera.

V

Polikiroldegiak,
museo gehienak,
errepideak, tunel
argizatuenak,
etxebizitzak eta
gainontzeko denak,
zer dira, gizarteak
behar dituenak
edo behartutako
gizartearenak?

VI

Bizi izandakoen
oroitza bizirik
manten dadin, bihotzak
sorta idatzi dit.
Eta nik behintzat ez dut
zalantza izpirik:
gure mundu honetan,
zer den ikusirik,
kontzientziak ez du
kabida handirik.

DOINUA: "Hamalau heriotzena".



Bidali zure sortak **bertsoak@argia.com** helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaiera

Literatura

Luis Berrizbeitia

Poeta ezagutzen genuen. Zoperna jenerala (1987) irakurri genion lehenengo, eta Eremu karroinduak (1992), ondoren. Aspaldiko lanak, egileak isilaldian iraun duen denbora handian ere gogoan hartzeko modukoak. Beharrik, eskutik heldu eta plazara ekarri zigun Koldo Izagirrek Luis Berrizbeitia XX. mendeko Poesia Kaieretan. Oraindik orain, berriz, 2008ko Nobel sari Jean-Marie Gustave Le Clézioaren *Désert* lanaren itzulpena kaleratu du: *Basamortua* (Elkar). Poetaren esku finak kontu handiz zizelkatu duen prosa alditan beirazkoa, hizkuntza totala oinarri: tradizio kultua, perpausen jorsketa, berben hautu doia.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero



«Gehiegi egiten diogu muzin gure tradizioari»

Basamortua irakurri eta "ezin dotoreago itzulua" da nire baitako irakurlearen lehenengo hitza. Liburu-dendara joan, saltzaileari –irakurle handia bera– nire bozkarioa zabaldu, eta haren zaputza: "Baina ez da erraza". Jakin nahiko nuke zer iritzi duen itzultzaileak.

Ni beldur, halere, irakurle gehiago izango direla zure lagunaren iritzikoa, gauzak hotz kontsideratuta testu hau ez baita irakurgai samur-samurra, tarteka ahalegin bat eskatzen duena baino. *Basamortuaren* itzulpenaz esango dizut niretzat biziki lan zail eta nekosoan izan dela eta emaitzak ez nauela erabat asetzen. Testua beti hobetu nahia da itzultzaile guztien zigorra. Liburuari berari buruz, aldiz, esango dizut hura irakurri duten gehienek, nik barne, esaten dutena: eleberri bikaina dela, maila, tonu, estilo eta giro ezberdinez osatutako arte-lan mamitsu eta zirraragarria.

Karlos del Olmo itzultzaileak honela idatzi du iruzkina, EIZI Eren webgunean: "Ez da di-da batean hasi eta buka azkendu daitekeen itzulpen arina; halako poesia zama bat daroa lepoan". Poesia zama horixe begitانتzen zait eder lan honetan.

Pozten naiz liburu honen alderdi poetikoa eder gertatu izana, horrek esan nahi baitu jatorrizko testuaren edertasuna ez dela osoki galdu frantsesetik euskararako bidean. Karlos del Olmoren iritziari dagokionez, ados nago, salbu barrokismoaren kontuan. Niretzat barrokia Góngora eta Lezama Lima dira, baina ez Le Clézio. Le Clézio idazle sofistikatu eta estetizista da, frantses hizkuntzaren unibertso erretorikoan edoskia. Konbinazio horretatik heldu den idazkera ezin izan daiteke sinplea, baina ez du zertan barrokia izan. Nik esango nuke estilo landu, dotore, fin eta poetikoa

darabilela, eta itzulpenen horixe islatzen saiatu naiz, barrokismotan erori gabe.

Zein da *Basamortua* eleberriko hizkuntzari euskaraz eman nahi izan diozun tornua?

Lanari lotzerakoan erabaki nuen baliatuko nuen tresna linguistikoa *euskara totala* izango zela. Niretzat euskara totala da euskararen sinkronia eta diakronia osoa barnean hartzen duen euskara eredu, euskalki guztiak eta euskara idatziaren garai historiko guztiak biltzen dituen, ez ordea bertuosismo antzuzko su artifizial putzetan indarrak –itzultzailearenak nola irakurlearenak– alferrik akitzeko, bai zik eta hizkuntzaren baliabide posible guztiak orekaz eta antzez konbinatuz, adierazkortasuna, komunikazio indarra eta diskurtsibitatea ahalik eta urrutien eramateko. Euskara totalaren kontzeptua funtsezkoa zait eta beti saiatzen naiz aplikatzen nire lanetan, baina zoritxarrez akats bat dauka: bere korrelato kontzeptuala –euskaldun totala– ez da existitzen. Errealitate diglosiko higitu honetan, gauden kinkan, hizkuntzaren ezaguera partzialez osatutako hizkuntz komunitate herbal bati eredu total bat proposatzek estrategia zentzugabea irudi lezake, baina nik horretan Borges *dictum* existentzialistari jarraitzen diot: harea gainean bizi gara, baina eraiki dezagun harkaitz gotor baten gainean bizi bagina bezala.

Menturaz tradizio kulturearen ezagutza, perpau-sen josteta eta berben hautu doia ditu oinarri zure idazteko manierak, dela zeuretik ari zarenean, dela itzulpen lanean?

Hori da nire apustu eta helburua eta horretara biltzen da funtsean arestian aipatu dizudan euskara totalaren aferra: tradizioa errotik ezagutzea eta hizkuntzari ahalik eta zehaztasun handiena ematea, zer ere baita asmoa eta haren arabera tresnak baliatzea. Susmoa daukat gaur egun estandarizatutako hizkuntz ereduak sobera mugatzen dituela gure aukerak, sobera traba eta beldur barreiatzen dituela hizkuntza baliatzen dugunon artean eta, nolabait, gehiegi egiten diogula muzin gure aurrekoek menderen mende eraiki duten literatur tradizio eta ondare prosodikoari. Aski da behako bat ematea gure



“Itzultzailearen gurdiari bi zaldik tiratzen diote, nola diren leialtasuna eta gozotasuna. Idazleari leialtasuna zor zaio, baina irakurleari gozotasuna, ulerterraztasuna. Zaldi horietako bat sobera balakatzegatik bestea jelosten bazaizu gurdiak ez du egingo aurrera”.

klasikoen lanari, ohartzeko hiru ardatzen inguruan eraikitzen zutela estiloa: komunikazioa, indarra eta ederra. Ohartzen bazara, horiek dira erretorika onaren zutabeak. Trinitate saindu horri gehitzen zioten tradizioaren ezaguera sakona eta zentzu estetiko sendoa eta emaitza izaten zen batere konplexurik gabeko hizkera landu, ausart, koloretsu eta adierazkorra. Ez dut esan nahi Elkanoko Lizarraga edo Jussef Egiategiren antzeria idatzi behar dugunik –ni baitako ergela ez da hain ozarra–, baina ondo legoke baldin haien malgutasun, konplexurik eza eta askatasunetik zerbait berreskuratzen saiatuko bagina, zokora boteaz itoak gauzkaten zenbait gerruntze normatibo eta kokilatasun indusitu.

Eleberrian bi garai ageri dira, bata egungoa, iragan izan bat bestea. Bigarren horretan nabarmen egiten du gora tesuaren poetikotasun mailak. Molde ezberdinetan jardun behar izan duzu itzultzen?

Gure garaitik hurbilago dagoen hari narratiboan, zeinetan konstatzen zaizkigun Europako modernitatearen eta bere herriko sustrai tradizionaren artean zatikatua bizi den XX. mende

erdiko neskatxa amazigh baten zalantzak eta gogoetak, beldurrak eta ametsak, ibilera fisiko nola izpirituazkoak; zati horretan, diot, lirismoa hezia dago, agertzen da tarteka han-hemen, baina nagusi da gizarte moderno industrialaren deskripzio gordin eta idorra, eta narrazioa errealitate kamuts horretatik zerbait goratzen edo aldentzen den kasuetan maizago izaten dira zurrumbilo onirikoak hegaldi lirikoak baino. Aldiz, eleberriaren beste hari narratiboan, XX. mende hasierako Saharako herri natiboen bizimodu eta kultura, pentsaera eta filosofia xehatzen zaizkigun pasarte horietan, lirismoak toki gehiago hartzen du, herri horien konkista odoltsuaren goiti-beheiti historikoen deskripzio hotz, ia notarialarekin nahasten. Ez da asko nekatu behar ohartzeko idazleak bere ikuspegi idealizatu eta erromantikoaren argiaz edertzen duela herri natiboen iragan galduaren deskripzioa eta, aldiz, gordintasun, itsuskeria eta laztasunezko pintzelkadak XX. mende erdiko Marseilla bezalako hiritzar industrial masifikatu, lohi eta bihozgea

deskribatzeko gordetzen dituela. Dikotomia horretan oinarritzen dira kritikari batzuk Le Clézio idazle manikeotzat jotzeko. Beste batzuek, krudelagoak, idazle naif bezala ekarzen dute arrazoi beragatik.

Nola bizi izan duzu zure baitan itzultzaile/sortzailearen egitekoa lan honetan? Zein neurritan da itzultzailea itzurtzaile?

Abiapuntuko hizkuntza eta xede hizkuntza elkarren ahaide hurbil direnean ez litzateke egon behar tarte handirik itzurgintzarako, bestela arriskua dago premia gabeko iruzurra egiteko egileari eta irakurleari. Aldiz, bi hizkuntzak hain senide ez direnean, edo arrunt izaera ezberdineko sistematik direnean, iruditzen zait onar daitekeela laxoago aritzea, esaterako ordain zuzen-zuzenak bilatzerik ez dagoenean perifrasiak eta moldaketak egiteko aukera emanez. Itzultzailearen gudiari bi zaldik tiratzen diote, nola diren leialtasuna eta gozotasuna. Idazleari leialtasuna zor zaio, baina irakurleari gozotasuna, ulerterraztasuna. Zaldi horietako bat sobera balakatzegatik bestea jelosten bazaizu gudiak ez du egingo aurrera: testuak ostikoka erabiliko ditu batean idazlea eta bestean irakurlea, edo biak batera, eta azkenean bide zuzenetik aldaratuko da. Horregatik, itzulpengintzan sorkuntzarako irriztu bat ezinbestekoa da, fideltasuna kostahala-kosta atxiki beharrez xede hizkuntzan zorrotzegiak gerta daitezkeen ertz batzuk leuntzeko baino ez bada ere. Eta, aitor dut, itzulpen honetan nik ere lizentzia gutxi batzuk hartu ditut testuaren orga euskararen bide xuxenetik eramategatik.

Itzultze lan gaitza egin duzu, batere ez erraza.

Lexikoa izan da gauza zailena. Kasik esaldiz esaldi egiaztatzen ibili beharra zein den hitz baten forma arautu estandarra eta haren ortografia. Eta gero, hor dira eremu semantiko

"Erabaki nuen liburu hau itzultzeko baliatuko nuen tresna linguistikoa euskara totala izango zela. Akats bat dauka: euskaldun totala ez da existitzen"

itsuak ere, euskaraz oraindik kurrimenturik ez duten hitzen euskal sinonimoak bilatu eta tar-teka asmatu beharrak, asmatuei zaporea eta sinesgarritasuna eratziki beharrak... Lantegi ikaragarria da lexiko sinesgarri, ulergarri eta zaporetsua finkatzeko kontu hori, baina zorionez izan dut laguntzaile galantik, hala nola Xabier Mendiguren eta Itxaro Borda, eta uste izatekoa da ez dudala astakeria gehiegi egin. Anekdota gisa esango dizut lexiko aldetik infinituki zailagoa gertatu zaidala Marseillan kokatutako pasarteak itzultzea basamortuan kokatutakoak baino. Liburuaren protagonista bezala, ni ere beti egoten nintzen basamortura begira, haren biluztasun lexikoko babesera noiz itzuliko zain.

Zergatik erabaki duzu erlatibozko esaldietako aditz laguntzailearen gainean azentua ezartzea?

Irakurketa errazteko. Menpeko esaldiak pilatzen direnean, perpausen segida sobera luzatzen denean edo perpaus bat, laburra izanagatik, ambigua gerta daitekeenean, komeni da makulu grafiko bat izatea jakiteko nola irakurri esaldia. Edozein hizkuntza seriok hala egiten du: ulergarritasun arazo bat formula ortotipografiko baten bidez konpontzeko modua badago, adosten da formula hori, aplikatzen da, eta fini arazoa. Esaldi bat oker ulertzeko arriskua badago, obligazioa dago arrisku hori minimizatzeke eta horretarako behar diren tresna guztiak erabiltzeko. Hala ez egitea suizidioa da. Halere, bakoitza libre da nahi duen bezala jokatzeko eta nik neuk, aukeran, ez nituzke menpeko esaldi guztietako erlatiboak tildez markatuko. Baina koherentziaren amoreagatik liburu honetan erabaki zen denetan jartzea eta, okerrak salbu, hala atera da. ■

argia.com Luis Berrizbeitiarekin izandako solasaldiak eman zituen une interesgarri gehiago ere. Gure webgunean dituzu irakurgai.



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel.: 943681234
www.iriartejauregia.com

Liburuak

KRITIKA

Haragizko amoreak.

Omar Nabarro.

Susa.

77 orrialde. 13,50 euro.

Helduen literatura

Igor Estankona



Udaberria heldu da

OMAR NABARROK *Itsastxorien bindikapena* (Susa, 1985) argitaratu zuenetik hogeita bost urte pasatu diren honetan, Edorta Jimenez itzuli da izengoitiak eskaintzen dion mito kutsuaz inguratutik, Arestiri erreferentzia eginez lehenengo poeman, eta Pedro Antonio Aníbarro (1748-1830) arratiarraren esaldi indartsu batekin: “Polborea baño prestago/erexegiten da aragizko amorea”.

Txibien sasoia delarik itsaspean, epel eta astiro hurreratzten da idazlea poesiaren zeremoniara. Liburuak abiada hartzen du gero, eta ez du atsedetik ematen harik eta bukatu arte. Omar Nabarroren begirada gardena da, ume batena letxe, baina bizitzaren arratsaz hitz egiten digu batik bat. Irakurlearen zentzumen guztiak kitzikatzen ditu mundakarrak *Haragizko amoreak* honetan: belarren ahoak entzuten dira haize gozotan, sudurretatik kresal eta sexu usaina sartzen da, Bilboko herdoila. Harriturik nago ni oraindik liburu honen bitalismo, erotismo, jakitueria, sakontasun eta dotoreziarekin. Eta jarrai nezake tasunak jartzen, baina liburu honek azken aldiko poesiari egingo dion ekarpena deskribatzeko motz geldituko nintzateke.

Konfiantza itzelarekin idazten du Jimenezek denboraren markei buruz, naturaren betierekotasunaz, irudimen ia agortezinarekin. Irudien mozkorraldi baten antzekoa da *Haragizko amoreak*, baina ardo zuri freskoaren antzera, mahaitik altxatu arte ez naiz konturatu poema hauek garuna hartu didatela, barruraino pozondu.

Libertateri kantatzen dio idazleak. Zentzumenei. Gozamenari eta oinazeari. Profetak bezala erakusten digu bidea. Ez du erlijio berririk inauguratu, baina liburu honek gogorazten digu ondo idaztea, plazerez idaztea, ironiaren domeinua eta erritmoaren kadentzia berreskuratu beharreko baloreak direla gure poesian, era honetako poesian. Gizon naturala, finean, molderraza da ura bezala, gardena ura bezala. Gizon naturalak ez dio beldurrik biluztasunari, eta denon biluztasunak ikusten ditu. Omar Nabarro itzuli da ba, eta *Aldarri egiten du haragiak* poemarekin bakarrik, hutsean utzi ditu poesia idazten dugunon ahaleginak. Jarraitu egiezu bere pausuei *Haragizko amoreak* aberats honetan zehar, forma literarioa baino harago doan lana da eta: bere bizitzako udazkenean inoiz bukatzen ez den udaberriari buruz hitz egingo dizu. Unibertsoaren durundua dakarte bere hitzek. ■

Karmel aldizkariaren 268. zenbakia

Ohiko moduan, hainbat eduki bildu dituzte *Karmel* literatur-aldizkariaren azken zenbakian. 2009ko azken hiruhilekoari dagokio, eta Patxi Salaberrik, Miel A. Elustondok, Iñaki Sarriugartek, Luis Baraiazarrak, Patxi Uribarrenak eta Julen Urkizak idatzi dute kultura sailean. Gizarteari eta elizari buruzko



Karmel 268.
Batzuen artean.
Euskal Herriko
Karmeldarrak.
207 orrialde.
13 euro (urteko
harpidetza).

artikuluak ere badaude karmeldarren aldizkarian eta literatura atalean zendu berri den Joxemiel Bidadorren ipuin bat aurki daiteke, besteak beste. Horrekin batera, Joxemari Urteagaren testu bat, edota Mikel Asurmendi ARGIAko kazetariaren poema bat; baita Juan Kruz Igerabide, Etxahun Aurkenerena eta Castillo Suarezrenak ere. ■

Katalunia Espainiaz nazkatu izanaren zergatiak

Toni Strubell i Truetak orain dela bi urte esan zuen nahikoa zela. *El moment de dir prou* (“Aski dela esateko unea”) argitaratu zuen. Orain, Elkar taldean gaztelaniazko liburuak publikatzen dituen Ttartalo editorialaren bidez, Cervantesen hizkuntzan irakur daiteke, *Hasta aquí hemos llegado* izenburuarekin. Herrialde Katalanetako gaur egungo egoera politikoaz idatzi du Strubellek. Bere ustez, Kataluniako gizartea nazkatuta dago marko politiko espainiarrarekin. Pentsalari kataluniarrak gogoeta egiten du frankismoa bezalako gaiak tratatzeko oraindik dagoen tolerantziak, diktadura gainditzeko ezintasunaz, katalanofobiaz... Azken urteotan

independentismoak bizi duen gorakada ulertzeko oso aproposa. ■



Hasta aquí hemos llegado.
Toni Strubell i Trueta.
Ttartalo.
148 orrialde.
14,25 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Songs of love & destruction.
Bitter Honey.
Autoekoizpena.
Iraupena: 45'05".
5 euro.

Rock klasikoenaren dotoretasun eta askatasuna

ARRASATEKO taldea Jukebox, Black Sheeps eta Radio Wings taldeetako errautsetatik dator, baina lortutakoarekin pipa erretzeko moduan daude. Azkeneko taldearen ildoak berreskuratu eta emaitza entzungarriagoa eta borobilagoa bihurtu dute, garapen, melodia eta aldaketa dotore asko dituzten kanta txukunetan. 70eko hamarkadako hard-rocka eta rock klasikoa da, batez ere, lantzen duten esparrua eta Deep Purple, Led Zeppelin eta The Who dira totemeta-

ko batzuk. Baina sei minutu arteko ingelesezko piezatan MC5, Rainbow, 90eko hamarkadako talde grungeak eta The Cult ere berpiztu dituzte. Instrumentista eta abeslari oso finak, hiru egun eskasetan rockero zaharrak eta jakin-mina duten gazte jantziak liluratzeko moduko kantak eta soinua lortu dituzte. Adi *Ride*, *Bite me*, *Bitter Honey* eta *Goodbye* moduko hitl-ei.

www.myspace.com/bitterhoneyzone

Bitter Honey

«Gure rock-and-rollaren ametsa gero eta urrutiago dago, batez ere herri honetan»

"Nerabea nintzenean rock izarra izan nahi nuen, neskez eta whisky eta koka tonaz inguratuta. Baina orain, nagusiagoa naiz eta egunero lanera joaten naiz 9:00etatik 17:00etara". Hortaz, orain zein da taldearekin duzuen helburua?

Zahartzen ari gara eta konturatu gara gure rock-and-rollaren ametsa gero eta urrutiago dagoela, batez ere herri honetan. Hala, orain gure helburua da rockaren *kurrelak* izatea.

"Ikusten duzuna da daukazuna". Ez duzue ezkututzen Zeppelin, Who, Black Sabbath eta antzeko taldeen jarraitzaileak zaretela. Zer zeukaten talde haiek?

Beraien irudimenari ez zizkioten mugak jartzen eta hori konposizioetan ikusten zen; eta estilo zehatzetatik kanpo egoten ziren beti. Gure asmoa hori da, estilo batean kokatu gabe musikari irteten uztea. Zuk



aipatutakoak izugarritzko taldeak dira, baina Atomic Rooster moduko talde ezezagunagoak ere aintzat hartzekoak dira.

Songs of love & destruction amodioaren eta desamodioaren arteko lerro mehea da? Disko ia monografikoa da, ezta?

Bai. Esan dezakegu diskoan bat egiten dutela maitasunak, ezin-ikusiak eta banantzeak, gai unibertsalak guztiak.

Bitter Honey Radio Wingsen eboluzio naturala da, ezta?

Bai, duda barik. Radio Wings zen talde bat ulertu gabe geratu zena; abestietan zituzten garapen eta aldaketa ugariak ulertzeko talde zaila egiten zuten. Bitter Honey haren eboluzio errazagoa da.

Zergatik jo zenuten Dani Uleciarengana?

Howie & The Mussels taldearekin egin zuen ekoizpen lana entzun ostean,

erabaki genuen estudio berean (Tio Pete) grabatu, eta berak nahastu eta masterizatzea nahi genuela. Egun gutxitan egin arren, gustura gaude. Pentsatu duzue taldera hammonda jotzen duen norbait batzea?

Bai, behin baino gehiagotan pentsatu dugu, baina ez dugu hammonda edo teklaturia jotzen duen inor ezagutzen. Inor animatuko balitz, jar dadila gurekin harremanetan. ■

Ezpalak

JON TORNER

Anish Kapoorren artelanak Bilboko Guggenheimen



ANISH KAPOOR artista indiarak 1980ko hamarkadatik gaur egunera arte egindako pintura eta eskulturak paratu ditu Bilboko Guggenheim museoan. Kapo-

orrek formaren eta espazioaren inguruan egin dituen ikerketek, eta kolore eta materialekin egin duen erabilerak nabarmen eragin dute egungo eskulturaren bilakaeran. Artistari, bere obrari eta Bilboko erakusketari buruzko informazio gehiago www.guggenheim-bilbao.es webgunean aurkituko duzue.

Antzinako mapen bilduma

BIZKAIKO DIPUTAZIOAK *Euskal Herria museo: Kartografia bilduma* liburua kaleratu du herritarrak jabetu daitezen mapa eta plano zaharren balioaz. 66 dokumentu jaso ditu liburuak; tartean dira Bilbo, Baiona edo Iruñeko planoak, Gipuzkoako lehen mapa inprimatua, Nafarroako erresuma zaharreko sei merinda-deak erakusten dituen dokumentua... Liburua CD-ROM batek osatzen du eta 2.000 aleko edizio berezia kaleratu dute. Bizkaia.net webguneko Kultura sailean liburua PDF bertsioan (42171 Kb.) deskarga daiteke oso-osorik (<http://ttiki.com/11625>). Bildutako mapa eta planoak Gernikako Euskal Herria museoan jarri dituzte ikusgai.

Asel Luzarraga idazlearen aldeko jaialdia egingo da martxoaren 27an Bermeoko Kafe Antzokian. Besteak beste, Ruper Ordorika, Mikel Urdangarin, Joseba Tapia, Gatibu, The Uski's, Asier Serrano, Ken Zazpi eta Kerobiak parte hartuko dute Asel Askatu plataformak antolatutako ekitaldian.

Saroi Jauregi zaldibiarra da Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko lehendakari berria. Euskal Filologian lizentziatua, Elhuyar Fundazioan egiten du lan, euskarazko testuen zuzentzaile moduan. ETBko *Hitzetik Hortzera* saioan aurkezte ibili zen 2005etik 2008ra, eta herriarte-ko txapelketan hasi zuen gai-jartzaile ibilbidea.

SOS-Iruña Veleia plataformak webgunea (www.sos-irunaveleia.org) sortu du, "aurkikuntzez eztabaida elektroniko serio eta sistematikoari bide emateko asmoz". Webgunea Koenraad Van den Driessche doktoreak, Eliseo Gil aztarnategiko zuzendari ohiak eta Idoia Filloy zuzendariorde ohiak aurkeztu dute.

● **Naroa Zubillaga itzultzaileak Beterriko Liburuaren 45. zenbakian:** «Itzultzea positiboa da, horrek ez du esan nahi jendeak lan horiek irakurriko dituenik, baina irakurriko baditu ezer baino lehen aukera eskaini behar zaio. Gero urteak pasa ahala ikusiko da funtzionatzen duen edo ez, espero dezagun baietz. Azkenaldian, kanpoan arrakasta izaten ari diren lanak aldi berean euskarara itzultzen eta eskaintzen hasi dira, eta uste dut argitaletxeek arrisku hori hartu behar dutela; irakurleak bi urte lehenago liburu hori gaztelaniaz aurkitu badu beharbada gaztelaniaz irakurrita izango du, eta ez du berriz euskaraz irakurriko».

AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL GARCIA

Kua kua doinuak alfonbra gorrian

Ahate pasa. Zuzendari eta gidoilari: Koldo Almandoz.
Aktoreak: Anade Ahate, Jesús Cuenca, Nagore Aranburu, Peru Almandoz. Euskal Herria. 12 minutu.

DIVO SAMARRA da Anade Ahate, errodajearen gogortasunari aurre egiteko bufanda eztarrian eta managera gertu. Dotore eta tente ibiltzen da gainera, ahateek berezkoa duten pose itxuroso horrekin. Azken finean, aktore handi guztiek dute divismo ukitu bat, eta antzezle handiak dira ahateak. Hala onartu dute dokumental honetan Polanski, Winterbottom, Fincher edota Kusturica zuzendari ospetsuek: gehitxo edaten dutela dio Fincher-ek, baina ideia propioak dituzten aktoreak direla, pertsonalitate handikoak, eta hori eskertzekoa da.

Fitxa teknikoaren arabera, duckmentary bat egin du oraingoan *Belarra* eta *Amuak* film laburren autoreak. Ahate pasa izeneko teknikaren garrantzia aztertzen du film laburrak, plano batetik bestera salto egiteko ahateen paseotxo baliatu duten peli-

kulak alegia, eta egia esan, makina bat dira halako adibideak zinemaren historian. “Belaunaldiz belaunaldi pasa den abilezia” omen, Anade Ahateren hitzetan. Ironia bikainarekin, luma zuriko izarren merituak eta bizimodua pantailaratu ditu Koldo Almandozek. Eszena onenetakoa, naturaltasun osoz mintzo den albaitariari egindako elkarrizketa (irudian), aktore berezi hauen dietaz, makillajeaz, arduraz...

Kimuak egitasmoko azken edizioan parte hartu du *Ahate pasak*, jaialdi ugaritan izan da eta izango da, eta sariak ere jaso ditu dagoeneko. Normala, hegaztien ibilbide zinematografiko oparoa ezagutu ostean, nik ere beste era batera begiratuko ditut Iruñeko Taconeran eta Bilboko Ahateen Parkean mokoka aritu ohi diren animaliatxoak.



ZIENTZIA UDALEKUAK 2010

12-14 urte
14-16 urte

Izena eman eta presta zaitez uda zientziarrigarri bat bizitzeko

Esperimentuak, abentura, naturaren ezagutza, ur-jolasak, irteerak... Zientzia da uda honetarako planik onena!

Izena emateko epea:
martxoaren 15etik 31ra

Informazio gehiago eta izen emateak:
<http://udalekuak.eihuyar.org>
tel.: 943 36 30 40

Ihesi

Testua eta argazkiak:

GORKA AZKARATE

Euskal Herria ezagutuz: Valderejo (Araba)

Kontrastez beteriko natur
gunea da Valderejo:
arroila ikusgarriak,
kare-haitzezko mendi
malkartsuak, mendien magaletan
hedatzen diren baso itxiak...



Saiaren erreinuko haitzetan gora

LALASTRA, Lahoz, Ribera eta Villamardones herriak daude Valderejoko Natur Parkearen mugen barnean. Aurreneko bietan oraindik ere jendea bizi da, Ribera eta Villamardonesen inor ez. Lalastran Natur Parkearen Interpretazio Gunea kokatu zuten orain gutxi, eta bizitzaren hauspoa Lahozen baino nabarmenagoa da han, turismoaren bultzadaren eraginez nagusiki.

Klimari dagokionez, bada Valderejon nabarmentzeko moduko berezitasun garrantzitsua, ingurua berezi bilakatzen duena: eremu honetan klima kontinentalak eta atlantikoak talka egiten dute, eta mikroklima berezia sortzen da bertan, urte osoan zehar prezipitazioak noiznahi izaten direlarik eta oszilazio termikoak ere bai. Fenomeno hori mesedegarria da berdetasuna eta kolore biziak uneoro puri-purian mantentzeko.

Landaredia aldetik oso eremu aberatsa da Valderejo, eta baita

fauna aldetik ere. Aipagarriak dira sai arreak inguruotan dauzkan koloniak. Horiek babeste aldera, parkeko zenbait zatitan ibiltzea debekaturik dago urteko sasoi jakinetan. Horren guztiaren informazioa, Lalastrako interpretazio gunean jasoko du bisitariak.

Valderejoko haranean orotariko txangoak egitea da posible, txangozalearen nahiaren eta ahalmenaren arabera. Ondorengo lerroetan, aukera horietako bi aurkeztuko ditugu. Lehena paisaia aberatseko ibilbide zirkularra da, Vallegrulloko tontorretik igarotzen dena. Bigarrenak Karria haitzera eramango gaitu, Euskal Herriko mendirik basenetakoa den horretara. Norberak aukera dezala, bat edo beste. Biak ere gomendagarriak oso, eta aho zapore gozoa utziko digutenak.

Vallegrull eta Puren ibaiaren arroila

Lalastratik abiatu (913 m), Vallegrull gailurrera igo, eta Puren

ibaiaren arroila zeharkatuz berriz ere, Lalastrara itzultzen den ibilbide zirkularra Valderejo ezagutzeko egin daitekeen ibilbiderik aproposena da. Lalastratik gaur egun biztanlerik ez duen Villamardones herrixkara bidean, errota bat utziko dugu ezkerrean, eta bizkor ailegatuko gara Villamardonesera. Igoera labur baten ostean, lepoxxa batera helduko gara, zeinetan ur putzu bat dagoen. Gailurreria jarraitu besterik ez dugu egin behar izango, Vallegrull tontorrera iritsi arte (1.226 m).

Bada beste igoera bide interesgarri bat, abiapuntu bera duena. Villamardones herrixkarako bideari segi beharrean, ordea, Lahoz aldera joko dugu kasu honetan, segidan San Lorentzo ermitara (1.111 m) doan bideari jarraitzeko (San Lorentzoko ermitara Villamardonesetik ailegatzea ere posible da). San Lorentzoko ermitatik Valderejoko haranaren ikuspegi ederraz gozatzeko aukera izango dugu.



Valderejoko haranean bat egiten dute mendi zorrotzek eta larre berdeek.

Vallegrulleko tontorretik, bestalde, parez pare izango dugu Karria haitza, mendigune benetan erakargarria.

Vallegrulleko tontorra atzean utzi eta gailurreriari segituko diogu hego-ekialderantz, ikuspegi ederraz gozatuz betiere. Ez da zaila, Valderejo natur parke zergatik izendatu zuten igartzea (1992an jaso zuen izendapena). Paisaia ikusgarriari bertako fauna eta landaredia berezia gehitu behar zaizkio; izan ere, bertan dago Euskal Herriko sai arre kolonia garrantzitsuenetakoa, eta otsoaren presentzia ere, onerako eta txarrerako, nabarmena da inguruotan.

Poliki-poliki altuera galdu, eta parean dugun Santa Ana gailur

nabarmenaren eta zeharkatzen ari garen Vallegrulleko gandorren artean dagoen atakara iritsiko gara, Herraneko haitzartera. Bazter honetan, Puron ibaiaren sigisagek, hainbat ur-jauzi txikiz jantziak, irudi ikusgarrienak eskainiko dizkigute. Igarobide honek nolabaiteko garrantzia izan bide zuen erromatarren garaian, antzinako aztarnarik bada-eta inguru horietan. Errekaren ibilguari segika, erraz iritsiko gara Ribera izeneko herrixka despopulatura. Gure arreta piztuko du harkaitz baten gainean juxtu kokatzen den San Esteban elizak.

Riberatik Lalastrarako bidea osatzea baino ez zaigu faltako

txango honi amaiera emateko. Horma harritsu batek gidatuko gaitu lehen zatian, eta ondoren, errearen ibilgua jarraitu besterik ez dugu egin behar izango. Villamardonesera iritsiko gara lehenik, eta Lalastrara segidan. Ibilbide honek ez du inolako aldaketarik jasan eremua natur parke izendatu zenetik, eta paisaia aldetik oso aberatsa da.

Karria haitza: orotariko aukerak

Karria edo Gobeia haitza, haranari berari ere izena eman dion mendia, Euskal Herriko gailurrik basenetakoa da, hainbat ertz zorrotzez ebakia eta igoera errazegirik gabekoa. Beren burua txangozale soiltzat duten horiek





Karria haitzera igotzeko azkeneko metroetan, katearen laguntza izango dugu.
Hala iritsiko gara benetan zorrotza den gailurrera.

izerdi pixka bat isuri beharko dute, Araba Burgosetik bereizten duen mugan bertan kokaturik dagoen mendigune latz honetako punturik garaiera helduko badira (1.130 m).


Gaztelako lurretan kokaturik dagoen Arroyo de San Zadornil herrixkatik abiatzen da Karria haitzera igotzen den bide arrunta, mendizaleek gehienetan erabiltzen dutena eta oztopo gutxien jartzen dituen. Igoerako zatirik bertikalena gaingitzeko, burdinazko hainbat ziri eta kate bat daude paretari itsatsirik, gisa honetako eremuetan trebetasun handiegirik ez duten mendizaleak erosoago molda daitezten. Badira, bestalde, mendia era honetako hornigaiz janztearen aurka dauden mendizaleak ere, mendiak berak jartzen dituen baldintzak

artifizialki ezabatzen dituztela-eta. Kontuak kontu, txangozale batek baino gehiagok lasai hartu ahal izango du arnasa, Karria haitzeko eremu bertikal horretara inguratu eta burdinazko katearen laguntzaz igotzeko aukera daukala ikustean.

Karria edo Gobeia haitzaren ekialdeko gailurreria lerdana, haitzean eginiko zulo batek zeharkatzen du alderik alde. Kondairak dioenaren arabera, Korroko biztanleek egin omen zuten zulo hau, arrautzak jaurtitzearen jaurtitzeaz, Arroyo de San Zadornileko elizako ordularia ikusi nahi zutela-eta. Ez da ahaztu behar Karria haitzak berak banatzen dituela Arroyo de San Zadornil eta Korro, lehena haitzaren hegoaldean eta bigarrena iparraldean, Gaztelako lurretan lehena eta

Arabian bigarrena. Bada beste bitxikeriarik mendigune berezi honetan: gailurreriako ekialdeko tontorretako batek Rueda Mediodía (1.129 m) izena hartzen du. Antza denez, ahurtasun bat dago juxtu kokapen horretan, zeina eguzkiak erabat argitzen duen eguerdi partean; hori litzateke toponimo bitxi horren jatorria.

Karria haitzera igotzeko ohiko bide, esan bezala, Arroyo de San Zadornil (708 m) herritik abiatzen da; Karria haitzeko puntu gorenak 1.130 metroko garaiera duela kontuan hartuz, ez da gehiegizkoa gaingitu beharreko pendiza, eta ez dugu denbora gehiegi beharko tontorrera heltzeko: ordu eta erdi inguru nahikoa izango da. Tentsioz beteriko ordu eta erdia izango da, hori bai. Nabarmena da herritik abiatzen



Vallegrulleko tontorretik gertu, labar zorabiagarriak haranaren gainean.

den bidexka, eskuinerantz lehenik, eta ezkererantz ondoren, haitzaren oinarrira zuzen-zuzenean, hainbat margo ikurri eta beste hainbeste harrespili segika. Berehala egingo dugu tximinia pikoarenarekin topo, eta bitan pentsatu gabe, katea gogor heldu eta arretaz egingo dugu gorantz, harik eta Karria haitzaren ipar-mendebaldeko gailurreria zora-biagarri heldu arte. Kontu handiz, sobera zapalduko xenda jarraitu baino ez dugu egin beharko, Karria edo Gobeia haitzaren gailurrera iristeko (1.130 m). Vallegrull, Recuenco, Mota, Cueto eta Gaubea haraneko gainerako gailur garrantzitsu guztiak begien bistan izango ditugu, eta baita ere, nola ez, Valderejo-

ko haran ezkutua, Euskal Herriko altxor gordeetako bat.

Nolabaiteko maila teknikoa izan dezaketen era honetako txangoetan, igotzea bera baino zailagoa gerta daiteke jaistea. Hori horrela izanik, tximiniaren jaitsiera kontu handiz egitea eskatzen dugu, eta mendian eskarmentu handiegirik ez duten horiek sokaz lotu eta rappel koxkor bat eginez jaistea komeni da, zer gerta ere. Txango motza, baina nekez ezabatuko zaigun oroitzapena utziko diguna, zalan-tzarik gabe.

Karria tontorretik, gailurreriak mendebalderantz jarraitzen du, Arrayuelas puntaraino (1.128 m), Los Grojos lepoa igaroz (1.080 m). Gailurreria hau eskalada gus-

tagarri bat eginaz gaintitu badaiteke ere, Arrayuelas tontorra bada helmuga, bizkor heldu gaitezke bertara, harresia hegoaldeetik inguratu eta Los Grojos lepora ailegatuz, non gailurreriaren zailtasun guztiak amaitzen diren. Arrayuelas gailurrera erraz iritsiko gara, isurialdez aldatu eta gurutze baten albotik igaroz. Beste eskalada bide interesgarriak ere eskaintzen ditu Karria haitzak; hala nola, hego-ekialdeko ertza –zailtasun handirik gabekoa, baina oso aereo–, ipar-mendebaldeko ertza, ez aurrekoa bezain dotorea, baina Karria haitzeko tontor guztiak lotzeko aukera eskaintzen duena gailurreriatik jaitsi gabe, edo Pitxe eskalada bide ezaguna, Karria haitzaren hego-mendebaldeko horman dagoen eta 160 metro luze den eskalada bide ederra, erdi mailako zailtasun teknikoa duena. ■



ANA ZAMBRANO

Kike Amonarrizzen umorea

HEURE HAUR HIZKERAN, TXORI	↓	IZPI, PUSKA TEKNIKO	↓	AUPA!, EUP!	↓	ARGONAREN SINBOLOA NORAT ATZIZKIA	↓	GORA JOAN EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA	↓	PERTSONAIA- REN IZENA ZORALDI	↓	LOALDIA ESKATU	↓
↖		↓		ERREGEAREN OINORDEKOA OKA	→			↓		↓			
PERTSONAIA- REN ABIZENA BARATXURIA	→			↓			HERRI HIZKERAN, BIZKARTZAIN AZKENA	→					
↖							↓			ONGI DAGO	→		
BAKARRA	IRIDIOA	→							↖		BOKAL ERREPIKATUA BASAMORTU- KO LARRE	→	
↖	BURUKO ILEEN MULTZO (PL)	↓							ENBOR MADARI	→	↓		BOZERA- MAILE
DAUKAT JADANIK	→		↓						↖				↓
↖		URANIOA AMORE EMAN	→						MUTU EGUNEROKO JANGAI	→			
10 INGELESEZ PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA	→	↓							↓	ALDAPA JARDUN, ERAGON	→		
↖				SAGAR HONDAKIN GALIOAREN SINBOLOA	↓	OINARRIZKO EDARI FRANTSESEZ, KALEA	↓	OXIGENOA ORE JANGARRI	↖	↓	... HOC, LATINEZKO LOKUZIOA ZAKUR	→	
LIBRATU EGUZKIA	↖							USTELDU, GALDU HIDROGENOA	→		↓		
↖				MORROI	→			↓		HARI BIHURTU	→		

– Patata hauek
Mikelen barrabilak
dirudite!
– Horren handiak al
ditu?
– Ez, handiak ez! Zikinak!



WWW.PACHD.COM

	H	P	H	A	I	A	B
P	I	P	E	R	E	G	A
	R	Z	O	L	A	G	I
B	E	R	K	A	T	Z	A
		I	R		D	A	A
B	A	T			L	O	R
	D	U	T		U	D	A
J	A	U			I	S	I
T	E	N	P	U	O	I	K
A	S	T	I	G	A	R	A
	A	S	K	A	T	U	H
E	K	I	A	S	E	H	I
							I
							R
							U
							N
							A
							O
							D
							N
							O
							A
							A
							I
							L
							A
							R
							E



argia

argia.com/multimedia

Bertsio digitaletik harago Argi berri bat sarean




BIDEOAK:

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



DIAPORAMAK:

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




EKITALDIK:

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.



ARGAZKI-GALERIAK:

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



FILM-LABURRAK:

Euskarazko film-laburren hautaketa.

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Talidomida, pozoiztatetik itxaropenera

DE.ACADEMIC.RU



Lepraren kontra erabil daiteke talidomida.

ORAIN 50 URTE, haurdun zeuden emakumeek talidomida hartzeko aholkatzen zieten, gorakoak kentzeko eta lasaitzeko. Horren ondorioz, 10.000 ume baino gehiago akats genetiko eta fisiko larriekin jaio ziren, hankarik, eskurik edo belarrik gabe.

Merkatutik desagertu zenerako gizartearen arrasto nabariak utziak zituen talidomidak. Orain arte

ez dugu ezagutu farmako hark umekiengan zuen eraginaren zergatia, baina martxoaren hasieran, *Science* aldizkarian argitara emandako artikuluan, Hiroshi Handa-k eta Tokioko Teknologia Institutuko bere kideek argibide interesgarriak eman dituzte. Arrain eta oilaskoekin egin dituzte probak eta talidomida injektatu ondoren sortutako enbrioengan nabariak ziren malformazioak, baina ondoren CRBN deitu proteina injektatu eta hara non hazten diren hankak, hegalak eta bestelakoak garatzen.

Beraz, talidomida pozoia da bere horretan, baina arestian aipatu CRBN proteinarekin batera pozoiztatetik medikamentu izatera igarotzen da, lepra eta hainbat odol-minbiziren aurka eragiteko balio duena.

CO₂: aberatsok kontsumitu eta gainerakoek emititu

AEBETAKO Carnegie Zientzia Institutuko Ken Caldeira eta Steven Davis ikerlarien arabera, Suitza, Frantzia, Erresuma Batua eta Suedia bezalako estatuek euren karbono dioxidoen emisioen %30etik gora esternalizatu egiten dute.

2004an, herrialde aberatsetako -Txina barne- emisioen %23 esternalizatuta zeuden, eta estatu batzuen kasuan erdira ere ailegatzen ziren. AEBen emisio guztien %11 beste estatu batzuetan gertatzen dira; estatubatuar bakoitzeko, urteko 2,5 tona kanpoan emititzen dira. Europan, zenbakiak are okerragoak dira: europar bakoitzeko lau tona CO₂ emititzen direnak gure kontinentetik kanpo, guk kontsumitu ahal izateko.



EL DIARIO MONTAÑÉS

Interneten eta depresioaren arteko erlazioa

Leeds-eko (Erresuma Batua) Unibertsitateko psikologotalde batek esan du Interneten denbora asko nabigatzen dutenengan askoz ere handiagoa dela depresioa edukitze-ko probabilitatea. Ez dute hain argi, ordea, Interneten ibiltzeak eragiten duen depresioa ala depresioak bultzatzen gaituen Internet erabiltzera. <http://ttiki.com/11515> (Gaztelaniaz)

Erlatibitate orokorra frogatu nahian

Einsteinek iragarritako teoriak aspaldi frogatu ziren hurbilen ditugun unibertso-ko eremuetan, baina orain gutxi arte ezin gauza bera esan guregandik urruti dauden galaxietan. Zientzialari batzuek, azkenik, Einsteinen teoriak leku guztietan frogatzeko bideak ezarri dituzte. <http://ttiki.com/11517> (Frantsesez)

Sugeen ikusmen termikoa

Boek eta pitoiek izugarritzko ahalmena dute gauean ehizatze-ko. Kaliforniako Unibertsitatean, David Juliusek zuzendutako taldeak izpi infragorriak detektatzeko mintzak topatu ditu narrasti horien buruetan, eta *Nature* aldizkarian eman du argitara aurkitutakoa. <http://ttiki.com/11518> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Harripeko aingira

IRAKURLE FINA dut laguna. Geroni ere zahartu ahala berdetu egiten ginela esan zidana bera. Berbena-ura ez hartzeko gero, nioen azkenekoan, eta tapa, konputagailuko postontzia ireki ordurako, irakurle lagunaren erantzuna. Bere herrialdean,



CHAUSINHO

Lerro hauen ezkerrekoa da Luisa-belarra (*Lippia triphylla*), arabiar tea ere deitua.

Berbena deritzan landare familiako kidea da gure Luisa-belar hau, beheko argazkiko berdan-belarra (*Verbena officinalis*) bezala. Baina ezkerrekoaren ura lotarako aparta den hein berean da kaltegarria bestearena, berdanarena, edatea.



BLUEHAZVJUNEM

bere etxean berbena-ura oherakoan hartzen dutela, ospitaletan ere ematen dutela... Nola liteke, baina? Berbena, geurean ahulgarri dena, harenean osasungarri? Harripeko aingiraren bat edo giltzaperatutako katuren bat bada hemen... Aingirarena edo katuarena, ezkutuko muturren bat...

Hasteko, berbena izenez zenbat landare eza gutzen da? Hamabi baino gehiago, hamaika.

Katua giltzaperatzen dutenek hamar behinik badituzte: *verbena, común, de olor, extranjera, fina, bedionda, macho, mayor, melindres, oficial, olorosa...*

Harripeko aingirari usaina hartzen diotenek, hamahiruren bat, mundu guztikoak: *verveine, caraibe, citronée, citronelle, d'Afrique, de Miquelon, des Indes, des jardins, du Pérou, hybride, odorante, officinale, puante, queu de rat, rugueuse...*

Zientzia-izena *Verbena officinalis* duen landareari deitzen diogu euskaldunok berbena-belarra. Baita berdan-belarra, berberina, belberina, izusta, izurka, aistrika, belargorria, ihitzi-belar, orbanka, zezen-belar... Belar hau paparrean zuela azaltzen zen jendea santu handien jaien bezperetako ilunabarreko dantzaldieta. Hara dantzaldion berbena izenaren jatorria.

Neure ustez, gauean lotarakoan lagunari amak ematen zion berbena, han *verveine citronelle* deitzen dutena, gure Luisa-belarra da, *Lippia triphylla*. Arabiar tea ere deitzen dute. Dantzarako baino lasaigarria, sorgarria, min-kentzailea... eta logalegi aparta da.

9.000

Duela 9.000 urteko piper arrastoak, haziak e.a. topatu izan dira Ameriketako. Peruko Guitarrero eta Pachamachay kobetan (K.a. 8.600-8.000 mailan), eta Mexikoko Tehuaca bailaran (K.a. 6.500-5.500). Egundo aurkitutako piper aztarna zaharrenak dira. Babarruna, artoa eta patatarekin batera piperrak ere Ameriketatik ekarriak direla badakigu, baina han bertan edo Asian sortuak ote diren zalantza berritu den honetan, gogoan izateko... Egun Mexikon baino gehiago egiten da, hala ere, Txinan, Espainian, Turkian, Nigerian eta Indian.



Kala
LORE
APAINDURAK

Paisajismo zerbitzua • Terraza eta lorategiak diseinatzea

San Frantzisko, 24 • 20870 Elgoibar • Tel: 943744516

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Ez zituzten esklaboek eraiki

WWW.WORDPRESS.COM



EGIPTO, ORAIN DELA 4.500 URTE. Milaka pertsonak munduko hilobi ezagunenak, handienak eta iraunkorrenetakoak eraiki zituzten Keops, Kefren eta Mikerinos faraoientzat. Orain artean, historiako liburuek, literaturak, filmek nahiz komikiek Gizeh-ko piramideak esklaboek eraiki zituztela zioten. Baina Egiptoko kultura ministro Farauk Hosni-k langile askeen obra direla jakinarazi du berriki.

1990ean piramide inguruetan hilobi xumeagoak aurkitzen hasi ziren, Keops eta Kefren faraoien hilobiak eraikitzen ari ziren langileenak, hain zuzen. Tumulu horiek buztin lehorrezko adreiluz eginak dira, eta datazioaren arabera piramideen garai berekoak dira.

Egiptoko Antzinaroko Kontseilu Goreneko zuzendari Zahi Hawass-ek esan du hilobiok erregearen hilobiaren ondoan eraiki zituztela eta, beraz, pentsaezina dela pertsona horiek esklaboak izatea. "Esklaboak izan balira, ez zuten beren hilobiak nagusiaren alboan egiteko eskubiderik izango".

Literaturak eta filmek, orain arte, Gizehko piramideak esklaboek eraiki zituztela esan arren, egiptologoen topikoa gezurtatu berri dute.

Hawassek dioenez, langile horien lan baldintzak nahiko onak ziren. Lan gogorra zenez, langileak hiru hilabete behin txandakatzen ziren eta, hala ere, lan istripuak ohi-koak ziren, aurkitutako hilobiak lanean hilda-koenak baitira.

Egunero, deltako abeltzainek 21 behi eta 23 ardi bidaltzen zizkieten langileei (10.000 inguru). Horren truke, ez zuten zergarik ordaindu behar, proiektu nazional garrantzitsu batean laguntzen baitzuten.

Hilobietan aurkitutako informazio honek guztiak, Hawassen aburuz, piramideetako langile izatea oso lanbide balioetsia zela adierazten du, gaur arte kontrakoa pentsatu izan den arren.

Gizehtik gertu, Saqqara-n, beste bi mausoleo aurkitu dituzte orain dela gutxi. Hawassentzat, aurrerantzean oraindik ere aurkikuntza garrantzitsuak egin daitezkeela esan nahi du horrek. Egiptologia modernoak topiko batzuk baieztatzen eta beste batzuk hausten jarraituko du.

Arrastoak

Parisko 100 urte Kuboan sartuta

DONOSTIAKO Kursaleko Kubo-Kutxa aretoan, XIX. mendearen bigarren erditik gerra-arteko garairaino sortu ziren arte mugimenduen buruzko erakusketa dago zabalik apirilaren 5era arte. Beste modu batera esanda, inpresionismotik abangoardietarainoko bidea laburbildu dute 75 artelanetan;

obra horiek Oscar Ghez-ek Geneveko Petit Palais-en gordetako bildumakoak dira. Degas, Renoir, Utrillo, Van Dongen, Chagall, Picabia, Picasso, Sunyer eta beste hainbaten lanak ikus daitezke bilduman (irudian, Alphonse Léon Quizet-en *Le Maquis de Montmartre*, 1910).



WWW.DONOSTIA.ORG

Txelui Moreno

«Lubakiak estali eta zubiak eraiki behar dira»

Iruñea, 1958. Burlatarra da. Burlatako zinegotzi izana. Ezker abertzaleak Altsasun aurkeztu zuen agiria irakurri zuen azaroan. Ezker abertzaleak adimenez eta arduraz jokatzeko unea dela adierazi digu, baita uneon prozesu demokratikoa gauzatzeko baldintzak daudela ere.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Josu Santesteban



ETak Parisko inguruetan jendarme bat hil aitzin solastu ginen Txelui Morenorekin. Ondoren, Dammarie-Les-Lys herrian gertatutakoari buruz ezker abertzaleak egin duen balorazioarekin bat egiten duela adierazi digu solaskideak.

Zutik Euskal Herria agiria bi unetan ezagutzera eman zenuten: urrian eta otsailean. Zein testuinguruan kalera-tu zen gogoratzen al diguzu?

Urrian eztabaidarako txostena argitara eman zenean ez zen espero genuen bezala egin. Urriko atxiloteten [Otegi, Diez Usabiaga, besteak beste, Donostiako LABeko egoitzan] eraginez kaleratu zen, poliziak agiria hartu baitzuen. Agiria hedabideetan zabaldu zenerako Alfredo Rubalcabak eskuetan zeukan. Agiria kontsentsuatua zegoen baina oinarriek ez zuten irakurria. Halabeharrez, nahi baino lehenago atera zen prentsari, hainbat hedabideetan ematen ari ziren manipulazioak ekiditeko.

Agiriak balorazio ugari jaso du. Zein da zurea?

Ezker abertzaleak debate bat egin du, ez edozein debate, debatea maiuskulaz baizik. Orain arte eztabaidatu ez ziren aldagaiak beste era batez landu ditugu. Ez arazorik gabe, egoera ez baitago normalizatua. Ezin izan dugu hedabideetatik balorazioak egin askatasunez. Aitzitik, poliziak gure bilera asko deuseztu du. Halere, 7.600 lagunek parte hartu dute debatean, egoera oso zailetan. Legez kanpo dagoen erakunde batek, ia klandestino, jazarria eta jipoitua dena, jende kopuru hori mugiarazteak ezker abertzalea bizi-bizirik dagoela erakutsi du.

Geroago, Arnaldo Otegi idatzitako eskutitza eta ezker abertzalearen beste agiri bat zegoela aipatu zen zenbait hedabideetan.

Bai. Intoxikazioak. Hasteko, espetxean dauden atxilotuen eskutitza aintzat hartu behar da, prentsari atera zena. Atxilotuak izanda ere, eurek hasitako lanean eta

“Jon Anza hila izan dela argitzen bada, zer? Gobernuari ez zaio galdetu behar? Prozesu demokratikoan ez du eragiten?”.

ildoan jarraitzea gonbidatu zuten. Arnaldorena omen den eskutitza dago bestalde, poliziak prentsara bidali duen filtzazioez osatua. Badago ere *Gakoa* agiria. *Diario de Noticias*ek argitaratua, kide historikoek idatzia, diotenez. Inork ez daki baina nor diren kide horiek. Lotsagarria dena da, aurkitu omen dutena argitaratzea egileen baimenik gabe. Lotsagarria da kazetari-tzaren kode deontologikoa haustea. Ustezko egileekin kontrastatu gabe, poliziak filtratu duenari men egiten diote. Hara, dagoen bakarra ezker abertzalearen txostena eta Altsasun publiko egindako agiria dira.

Batzuek ETarentzako hitzak espero zituzten agirian.

Bai, baina agirian ez ditugu PSOE edo Espainiako Gobernua ere aipatzen, eta horiek ere eragile politikoak dira. Kontua ez zen hori. Kontua da ezker abertzaleak erabaki duela debata egitea, agirian finkaturiko oinarrietan. Horiek dira ildoak eta horien arabera izanen dira ondorioak.

Galdera hau ere egin dizute: “ETAk atentatu bat egingo balu?”

Eta esan diet: “Zer nahi duzue ETArek atentatu bat, zein helburuz ari zarete? Guk adierazi dugu nola nahi dugun prozesu demokratikoa garatzea: biolentziarik gabe. Rubalcabari galde diezaiotela ea agiriak dioen terminoetan garatu nahi duen prozesua. Ez diote galdetu.

Areago, zuk esan duzu ez dela ETArek atentaturik izanen.

Nik ezagutzen dudana ETak prentsan esana da. ETak prozesu demokratikoaren alde egiten duela esan du. Prozesua hasten denean, eragile guztiek badakite prozesuak badituela ezaugarri zehatzak, borroka modu zehatzak, argi eta garbi



gure agirian espezifikatuak. ETak ere bere azken agirian prozesu demokratikoak Euskal Estatura eramanen gaituela berretsi du. Nik ulertu dut beraiek badakitela zer ahalegin egin behar duten prozesuak aurrera egin dezan. Horiek horrela esan dut nik esan dudana.

(...)

Eta ulertzen dut ere puntu hori elkarriketa guztietan azaltzea, baina batzuek ito nahi gaituzte puntu horrekin. Hara, eta Jon Anza torturatua eta hila izan dela argitzen bada, zer gertatzen da? Gobernuari ez zaio errepresioaz galdetu behar, horrek ez du prozesu demokratikoan eragiten? Atxiloketak etengabeak izaten dira. Horietako bat hilik balego komisaldetan, zer? Tortura ez da geratu.

Euskal Estatura eraman gaitzakeen prozesu demokratikoa gauzatzeko ildoak bide daude. Zergatik daude orain? Zergatik ez ziren lehenago?

“Zatozte, diote. Ez. Kontua ez da gu joatea edo haiek etortzea. Kontua bilgunea aurkitzea da. Ez gaitezen errentagarritasun kontuetan sartu”

Arjelen, Lizarra-Garazin, Loiolan... asko ikasi du ezker abertzaleak. Esperientzia horietatik ikasia praktikara eramaten ari gara. Akatsak egin ditugula? Bai. Autokritika zorrotza egin dugu. Baina dabilenari gertatzen zaio. Beste batzuek ez dute akatsik egiten. Parlamentuan eseri, egitasmo hau edo hori proposatu, baina ondorioz ez. Gatazkaren ebazpen prozesuan urratsak ematen dituzunean hanka sartzen duzu, noski. Guk asmatu dugu eta huts egin ere bai. Horien arabera ari gara, Euskal Herriaren onarpena lortzeko.

Baldintzak badaudela diozue. Zein?

Duela 30 urte, ezker abertzaleak salbu, indar politikoek egun indarrean dagoen joko esparru politikoa onartu zuten. Egun, besteak beste, ELAk edo EAK bira eman dute, bide subiranistaren bidean daude, erabakitzeko eskubidearen alde. Hori lorpen bat da. Herri honetako gehiengoak, ñabardurak ñabardura, erabakitzeko eskubidearen alde dago, irtenbide demokratiko negoziatu baten alde. Areago, nazioarte mailako komunitateak onartzen du gurea bezalako askapen prozesu demokratikoa.

Ezkerreko indar abertzaleen artean adostasunen bat lortu daiteke?

Nik errespetu osoa eduki nahi dut indar politiko guztiekin. Uneon lubakiak estali behar dira eta zubiak eraiki, poliki-poliki bateratzen joateko. Ezkerreko espazio abertzalea atomizatua egoteak fabore gutxi egiten dio gure herriari. Prozesu demokratikoa bururaino eramateko ezinbestekoa da indarrak metatzea eta herria aktibatzea, eta horretan gabilta. Lortuko ditugun lorpenak izanen dira politika praktikoa egiteko bermea. Beraz, ezkerreko abertzale diren guztien parte-hartzea beharrezko da. Baina, denbora beharko da.

Zubiak ba al daude, esaterako Aralarrekiko?

Egun aldea nabarmena da. Guk, gure agiriaren debatean ez zuela ezerk eragin behar erabaki genuen, ez Estatuak ez gure herriko beste eragile politikoez ere. Erabakiak unilaterala izan behar zuela pentsatu dugu uste osoz. Alderdi eta sindikatuekin kontaktuak lantzen hasi gara. Denon aldetik gauzak garbi daudenean, hasiko gara zubiak altxatzen.

Antza, EArekiko hurbilago zarete.

Guk dakigunez, Aralarrek printzipioz ez duelako polo subiranistaren aldeko apustu egiten. Gure ustez, Aralarrek bere burua indartzearen helburua lehenetsi du, elkarlanerako baldintzak jarritz. Ulergarria eta legitimoa da. Ni ez nator bat, noski. EA bestela ari da.

Batzuen ustez, EAK hautu hori ere halabeharrez egin du.

EAK duela urtebete zuen posizio erosotik gaur eguneko posizioa

jauzi egin izana baloratzekoa da. Ez dio bide errazari ekin eta horren adibidea dugu jasaten ari den presio politiko eta mediatikoa

Mapa politikoa argitzeko dago, beraz.

Bai. Eta guk ez dugu zatituta jarraitunahi, guk elkarlana sustatu nahi dugu. Prozesu demokratikoa garatu ahala, gogoetak buruarekin egin behar ditugu, ez erraieztatik.

"Ezkerreko espazio abertzalea atomizatua egoteak fabore gutxi egiten dio gure herriari"

Zer balorazio egiten duzu Hamaika Bil Gaitzezen ekimenak Iruñean antolatatu zuen manifestazioaz?

Manifestazioak NaBaik egun barnebiltzen duena baino espazio ahaltsuagoa dagoela erakutsi zuen. Denoi erakutsi digu, denoi, ezker abertzaleari, NaBairi eta ezkerreko eta independentista guztiei posible dela bidea elkarrekin egitea. Nafarroako ezkerreko familia abertzale guztiak bildu baitzituen.

Artean, datorren urteko hauteskundeetan ageriko al dira aliantzak?

Guk debatea landu dugu, baina ez Nafarroako Parlamentuan aulki bat gehiago lortzeko. Gure funtsa eta xedea aldaketa politiko eta soziala gauzatzea da. Hauteskundeak garrantzitsuak dira, baina gure ustez momentu honetan garrantzi handiagoa hartzen du aldaketarako kla-

beak zeintzuk diren guztien artean argitzeak. Hemen goi ikuspegi zabalez ekin behar dugu. Uneon benetako aukerak daude aldaketa politiko eta soziala eragiteko. Ekin diezaiozun.

Aralarrek NaBain parte hartzeko gonbidatu zaituzte.

Bai, indar harreman joko baten barruan. Zatozte, diote. Ez. Kontua ez da gu joatea edo haiek etortzea. Kontua bilgunea aurkitzea da. Ez gaitzezen errentagarritasun kontuetan sartu. Nik hau irabazi... zuk hori. Ez. Fase hori iragana da. Fase politiko berri batean gaude. Denok umilagoak izan behar dugu, denok gauzak argitasun gehiagoz planteatu behar dugu. Oraindik ere badago elkargune abertzalea osatu nahi duena, baina gu kanpo utzita.

Aralarrek beste moduz jokatzeko zantzurik ikusten duzu?

Iritzi kontraesankorrak dituzte. Patxi Zabaletaren azken deklarazioak eta Txento Jimenezek ez datoz bat. Honek EAri hau esan dio: "Polo subiranista ala NaBai" Zertan ari dira. Argitu ditzaten euren jarrerak.

EAren jarrera argiagoa al da?

Ezta ere. Nafarroan ez behintzat. Baskongadetan polo subiranistara bide egiten ari dela dirudi, aliantza estrategiko baten alde, baina Nafarroan enkistatuta dago. EAKo kide kualifikatu batzuek sinatu dute ezker abertzaleak ez duela gainerako abertzaleekin izan behar. Beraz, zein da EAren jarrera? Argitu dezaten jarrera hauek ere. ■



Carlos Callón

Queremos Galego plataformako bozeramalea

«PPren *decretazoaren* kontrako unanimitate hau historikoa da»

Urtebete baino gutxiago behar izan du PPK, behin Xuntan boterea berreskuratuta, hizkuntzaren alde Galizian inoiz izan den protesta-olde handiena eragiteko. A Mesa pola Normalización Lingüística elkarteak gidatu zituen protesta horren lehen urratsak, eta aldi berean Queremos Galego plataformaren hazia erein zuen. Carlos Callón A Mesako presidente eta plataformako bozeramaleetako batekin hitz egin dugu.

UNAI BREA



A NOSA TERRA

Urtebetean, lau manifestazio oso jendetsu Santiagoko karriketan. Hain bortitzak izan dira PPren gobernuak galizieraren kontra hartutako neurriak?

Bai, batez ere bi: Funtzio Publikoaren Legearen aldaketa, eta irakaskuntzan hizkuntzaren erabilera arautzeko oinarriak, guk *decretazo* esaten dioguna. Horrez gain, neurri txikiagoak izan dira. Esaterako, itzulpengintzarako diru-laguntzak etetea, galiziera hizkuntza toxikoa balitz bezala. Zorionez, jendartearen presioari esker bertan behera utzi dute hanka eta bururik gabeko neurri hori. Iraun duen bitartean, galiziera izan da Espainiako Estatuan itzulpengintzarako laguntza publikorik eduki ez duen hizkuntza bakarra.

Funtzio Publikoaren Legea eta *decretazoa* aipatu dituzu...

Gobernu honek hartutako lehenengo neurria Funtzio Publikoaren Legea aldatzea izan zen. Ondorioz, galizieraz jakitea ez da honezkero funtzionario lanpostua eskuratzeko baldintza. Oro har, boterea hartu bezain laster, eta lehenago ere, gure hizkuntzarekiko oso diskurtso oldarkorra erabili zuen PPK. Horregatik, A Mesa pola Normalización Lingüísticak manifestazio deialdia egin zuen maiatzaren 17rako, eta handik gutxira Queremos Galego plataforma sortu zen. 600 eragile bildu gara oraingoz, pentsamolde guztietakoak, eta ez hizkuntzaren alorrekoak bakarrik.

Kontsentsu handi horrek, zer ardatz dauka, zer eskatzen duzue?

Hasteko, Autonomia Estatutuaren 5. artikulua bete dadila, hau da, botere publikoak galiziera sustatu dezala, Galiziako berezko hizkuntza den heinean. Hortik aurrera, gure aldarrikapenek legediarekin egiten dute bat: Hizkuntz Normalizazio Legea, 1983koa, eta Galiziera Normalizatzeko Plan Orokorra, 2004koa, biak aho batez onartutakoak. Eta biak PP gobernuan zela.

Ematen du PPren galizierarekiko politika askoz erasokorragoa dela Manuel Fragaren garaian baino.

Fragaren politika *pax linguistikoa* zen, galiziera pixkana-pixkana ahulduz joan zedila, baina zalaparta handirik gabe. Fragak, frankismo garaian, isunak ipini zizkien zenbait egunkariri galiziera erabiltzearen, eta gero,

behin Xuntako presidentea izanda, diputatuei gogorazten zien Galiziako Parlamentuan galizieraz egiten dela. Oraingo agintariei, berriz, itxurak ere ez die axola. Alberto Nuñez Feijóok, Xuntako gaur egungo presidentea, pentsatzen zuen inor ez zela mugituko hizkuntzagatik, eta ezusteko galanta hartu du, mobilizazioa erabatekoa izan da eta. Esan dezatela gero, galiziarrok ez garela mugitzen geure nortasun ikurren alde! Honek guztiak analisi berria egitera behartu du PP, ikusten ari direlako galizieraren aurkako politika egiteak kalte egiten diela. Eta gainera, beraiek espero ez zuten zerbait gertatu da: galiziera sekula erabiltzen ez duten sektoreak ere atera direla kalera.

Zer diote PPren oinarritzko kideek galiziera nagusi den eskualdeetan?

Bada erreakziorik. PP buru den udal batean aho batez onartu da *decretazoaren* aurkako mozioa, eta beste batean, euren zinegotziak abstenitu egin dira. *Decretazoa* ez dago inola ere defendatzerik eta... Uneon, PPz gain, alde dauden bakarrak dira ikastetxe kontzertatu sare bat, eta ikastetxe kontzertatuetako guraso federazioa, PPren lotura zuzena daukana. Gainerako elkarte, erakunde, alderdi... guztiak aurka daude. Unanimitate hau historikoa da.

Zer dakar, bada, *decretazoak*?

80ko hamarkadan adostu zen Galiziako hezkuntzan, Euskadin eta Katalunian ez bezala, ez zela hizkuntzaren arabeko talderik egingo. Horren ordez, irakaskuntzan galegoak gutxieneko portzentaje bat eduki zezala erabaki zen —gehienekoa ez zen zehaztu—, eta portzentaje hori apurka handituz joan zedila, normalizazio prozesuak aurrera egin ahala. Abiapuntua %25a izan zen, eta gero %33ra igo zen, Fragarekin betiere...

Transmisioa, gainbehera bizian

Galiziako azken mapa sozio-linguistikoa egin zutenean, 2004an, galegoa biztanleen %20aren ama hizkuntza zen. 1992an, %60arena. Datua ezin da bere horretan interpretatu, 2004ko mapa egin zutenean ez baitzituzten kontuan hartu 54 urtetik gorakoak. Baina hain zuzen horregatik, %40ko aldeak ongi adierazten du belaunaldi gazteengan galizierak duen atzerakada. Transmisioaren etena Espainiako Estatuko gainerako hizkuntza gutxituena baino askoz larriagoa da, Carlos Callónen berbetan. "Landa-eremuan galera ez da hain azkarra, baina hirietan hizkuntza amildegian behera doa".

Erabileraren bilakabidea ez da askoz hobea. 2004an, %39k erabil-



PACO VILABARROS/A NOSA TERRA

tzen zuen galiziera nagusiki ohiko jardunean. 1992an %61ekoa zen portzentaje hori. Kontuan eduki behar da ia Galiziako biztanle guztiek ulertzen dutela galegoa eta, ama hizkuntza ez izan arren, portzentaje handi bat dela hitz egiteko gai: hamarretik bederatzi, datu ofizialen arabera. Dezente gutxiago, Callónen ustez. Askok betiere.

... eta hori bete egiten zen?

Inoiz ez, baina behintzat legedian jasota zegoen. Kontua da aurreko legegintzaldian PSOE-BNG gobernuak %50eko gutxieneko portzentajea ezarri zuela dekretuz —hori da oraindik indarrean dagoena—, PPren adostuta. Baina PPk atzera egin zuen, hainbat presio jasan ostean, eta esan zuen %50a ezartzea galiziera inposatzea zela eta hauteskundeak irabaziz gero bertan behera utziko zuela dekretua. Hala egin du: Hezkuntza Sistema Publikoan Eleaniztasuna Lortzeko Oinarriak aurkeztu ditu, *decretazoa* alegia. Oso eleaniztasun bitxia da haiena, berezko hizkuntzaren presentzia gutxituz baitoa.

%50eko portzentajea gutxituko dute la esan nahi duzu?

Izan ere, gutxienekoa beharrean, gehieneko portzentajea ezarri nahi

dute: %33. Beste heren bat gaztelaniarentzat, eta bestea ingelesarentzat. Ikastetxe bakoitzean familiek hautatuko dute zer ikasgai ematen den hizkuntza bakoitzean. Eta Haur Hezkuntzan, gurasoen bozketaz erabakiko da zein hizkuntza erabiliko den geletan, gaztelania ala galiziera. Horrek eragin dezake ume askok, hirietan batez ere, galizierarekin inolako harremanik ez edukitzea 6 urte bete arte. *Decretazoak* abortu bat eragingo du, ikastetxe gehienetan oraindik aplikatu gabe zegoen arau bat hilko baitu.

Hortaz, Galiziako irakaskuntza publikoan ez dago %100ean galiziera erabiltzen duen ikastetxerik?

Izan badira, baina oso portzentaje txikia da. Europar Kontseiluak aipatutako datua da Galiziako umeen %1 dabilela murgiltze-ereduetan. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

AEKren XIII. mintegia

AEK-K XIII. mintegia egingo du datorren larunbatean, martxoak 28, Gasteizen. Lehenengo mintegia duela 30 urte, 1979. urtean, egin zuen Arantzazun (Gipuzkoa) *Euskal eskolak nora goaz?* lelopean. Oraingo mintegiak *Hiru hamarkada garena ikasten* du goiburua.

Igone Olabarriak 30 urtetik gora daramatza AEKn irakasle. Ondoko hitzak esan ditu *Berria* egunkarian: “Argi geneukan [duela 30 urte] euskara kalera atera behar genuela, eta hitzun gutxik hitzun asko sortu behar zituztela, ahal zen eperik laburrenean. Orain hor

daude erabilera egitasmoak eta antzekoak, eta ematen du gauza berria dela baina garai hartan baze- goen kezka hura, euskarak kalean ibiltzeko tresna behar zuela”.

Humboldt-en lanak udarako

RICARDO GÓMEZEK *Filoblogia* blo- gean eman digu abisua. Uda hone- tan argitaratuko da Wilhelm von Humboldt hizkuntzalari eta euska- ralarari prusiarrak euskarari eta Euskal Herriari buruz idatzitako lehenengo liburukia. Bernhard Hurch irakaslea da Humboldt hizkuntzalaritza lanen edizioaren arduraduna.



Humboldt-
lanekin udan
argitaratuko den
liburukiaren azala
da ondokoa.

BAHEA

Iñigo Fernandezek *Euskara eta Publizitatea* blogean esanak:

“Gizarte mugimendu asko aktibis- moa beharrean, ‘artibismoa’ hasi dira egiten. Hau da, artegintza hasi dira aplikatzen aktibismo sozialerako.

Aldarrikapen eta salaketa modu berri eta irudimentsuagoak ari dira egiten. Jendearen arreta beregana- tzeko, hedabideetan oihartzuna lor- tzeko eta, azken batean, gizartean eragiteko.

Aktibista izatea arrazionala, errutinazkoa, aspergarria izan dai- teke, eta jende askori ez zaizkio gustatzen aktibismo modu tradizio- nalak. ‘Artibismoak’, aldiz, diberti- mendua dakar, umorea, plazerra, bizipoza.

Munduak daraman martxa petra- lak eragindako haserrea bideratzeko modu berriak dira, umoretsuagoak, lasaiaagoak. Ekintza eta agerraldi zinez bitxiak asko. Jendearengana benetan iristeko gaitasuna dutenak. Pentsarazi egiten dutenak. Jende gehiegi mobilizatu gabe, oihartzuna eta eragina lortu ditzaketenak.

Horregatik, nahi nuke bai, arti- bismoa, artekintza edo sormen pix- kat behintzat euskara sustatzeko ahaleginetan...”.

Jon Irazusta, EHUKo Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordeak *Aldaketa hamasein* esanak: “Berez, Boloniako prozesuak ez du zeriku- sirik euskararekin, baina egin behar diren aldaketa horiek aprobetxatu egingo ditugu euskarazko eskaintza hobetu ahal izateko, erraztasun gehiago izango ditugu”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Administrazioak eta gastu sozialak

Joan den astean bi albiste garrantzitsu izan ziren, Hego Euskal Herriko administrazioak neoliberal gisa deskribatzen dituztenak biak ere: Sanz buru den Nafarroarena eta Lopezen Euskal Autonomia Erkidegoarena. Nafarroan erabaki dute gastu soziala murriztea Osasunbidea-ko enple- gua paralizatuz, hau da, osasun publikokoa. Ordezkapenak geldiarazi dituzte, bai behin behinekoak eta baita erretiroei dagokienak ere, kasu bakoitza aztertu nahi dute erabakitzeko ea ordezkapena egitea beharrez- koa den ala ez. Botika batzuk ezabatzen ari dira eta generikoak sustatu dituzte. Ez dago arazorik dirua beste proiektu faraonikoetan gastatzeko. Nafarroako arduradun politikoei gastu soziala ahulenei murriztu die: osa- sun publikoaren erabiltzaile diren herri sektoreei.

EAE 600 milioi euroko kreditua eskatzea erabaki dute, diruzaintza “zero eurotan” dagoelako eta Espainiako Gobernuak ez duelako argi ber- derik ematen aurtengo 2.050 milioi euroko zorpetzerako. EAJk ziurtatu du diruak egon behar duela, 2009ko azken lauhilekoaren batez besteko saldoa 2.209 milioi eurokoa zelako eta 2010eko urtarrilean 1.320 milioi euro zeudelako diruzaintzan; gainera, otsaileko lehen astean, foru ekar- penen kontura “mila eta bostehun eta koska milioi” euro gehiago gehitu zitzaizkien. Hori horrela bada, Lopezek eta Gobernuak oso ondo esplika- tu beharko dute zergatik martxoan “zero eurotan” dagoen diruzaintza. Egoera horrek frogatzen du euskal erakundeek finantza eta ekonomiaren autonomian dituzten mugak. Gainera, Gobernuaren izaera neoliberala erakusten du, nahiago baitu aberatsentzako zergak gutxitu eta zerga iru- zurrari aurre ez egitea, diruzaintza negargarri utziz, gastu sozialean izan ditzakeen ondorio logikoekin... Horrek ez die eragotzi ordea, 57 milioi euro ematea San Mames klub pribatuari!

Juan Mari Arregi

Denbora

LIZARRA-GARAZIKO PROZESUAN

behar besteko pazientziarik ez izatea leporatu zitzaion ezker abertzaleari, besteak beste. Berdin Loiolako prozesuan. Eta akusazio horietan ez da arrazoirik falta. Bi bake prozesuen izaera desberdina izan zen eta, beraz, azterketa desberdina merezi dute, baina argi dagoena zera da, herri honetako historian ETaren orria pasatzea asko kostako dela. Edozein kasutan ere, denbora giltzarri dela, pazientzia itzela behar dela eta erlojuari ere bere lekua egin behar zaiola edozelako prozesutan.

Hori da "Zutik Euskal Herria"-ren bultzagileek orain behar dutena, denbora. Denbora ezker abertzalearen baitan indar korrelazio berria eta borroka armatua alboratzeko erabakia han-hemenka zabaltzeko eta sustatzen dadin. Denbora beste eragileek ere ikus dezaten apustua serioa dela. Denbora ENAMek politika eta soilik politika egin ahal izan dezan.

Bitxia bada ere, aurreko bake prozesuetan denbora gehiago eskatzen zutenek ez dirudi orain oso prest daudenik ezker abertzaleari denbora hori emateko: "Gaitzetsi dezatela", "aldendu daitezela", "ez da nahiko", "ez da berrikuntzarik"...

Zalantza handiak daude ENAMek hartutako bide berriaz, baina akaso ez ote ziren zalantzak Lizarra-Garazikoan edo Loiolakoan? Edozein modutan, zalantzak argitzeko kome-ni da gertaera bakoitza bere lekuan jartzea.

Jean-Serge Nérin frantziako polizia heriotza bere testuinguruan aztertu behar da, enfrontamendu baten ondorioa izan da eta ez ETak eragindako atentatu bat.

Ezker abertzaleak agiri bidez ETari egindako eskakizuna ez da ohikoa izan, ETari eskatu baitio urta-



rrilean *prozesu demokratikoa*-rekin erakutsitako konpromisoa berretsi dezala. Tankera horretako eskaerak urriak dira ENAMen historian, baina eduki aldetik bakarretakoa da *prozesu demokratikoa* bidea biolentzia barik egin behar dela adierazten duelako.

Bihar bertan ETak adieraziko balu desagertzen dela are eta hobeto. Bere borroka aspaldi da borrokatzen dituen helburuen aurkakoa. Hala pentsatzen dugu ia ehuneko ehunak Euskal Herrian, baina armak ETak utzi behar ditu.

Badira adierazleak pentsatzeko ENAMen baitan badirela Altsasuko Adierazpenaren aurkako jarrerak, gutxiengoa izanik ere. Bada arrazoirik pentsatzeko Loiolako bake prozesuan ETA inposatu zitzaiola Batasunari. Bada arrazoirik pentsatzeko tentsio horrek hor dirauela. Egia da ez dela ondo ulertzen ETak bat egitea ezker abertzalearen gehiengoak dioenarekin eta ondoren hornitze lanarekin jarraitzea; eta ulertzen bada, presioa eta tutelaren ikuspegitik ulertzen dela, *prozesu demokratikoa*-rentzat batere mesedegarria ez dena.

Prozesu eta saio berri honetan badira zalantza eta argilunak, duda barik, baina urrats izugarri garrantzitsuak ere bai, eta hauei bere garrantzia ematea funtsezkoa da egungo egoera politikoan errealtate printzipioak interes politiko hutsaren aurrean lekuri galdu ez dezan. Eli-

katze horri begira, orain ETak behar bezala erantzun beharko lioke ezker abertzaleko eskakizunei eta hilabeteak pasatzen utzi gabe su-etena aldarrikatu.

JON ANZA AUZIAN ez da berrikuntzarik, egun batzuetan Parisko polizia hilketak kasua ezkutatu du, baina pentsatzekoa da Frantziako agintariak agindutako ikerketak aurrera jarraitzen duela indar osoz. Itxaron beharko da, beraz, baina Tolosako Purpan ospitaleko ardura-dunek gauzak bere lekuan jarri zituzten joan den astean: hiru bider jakinarazi zitzaion polizia ezezagun bat zutela ospitalean, bai hil aurretik bai ondoren. Zergatik ez zitzairen jaramonik egin ospitalaren jakinarazpenei? Hauei eta beste galdera askori egoki erantzuteak bakarrik uxatuko ditu susmoak, ez Rubalcaba barne ministroaren mehatxuek.

ELOY VELASCO EPAILEAK kinka larrian jarri ditu Espainia eta Venezuelaren arteko harremanak. Hilaren 22ko artikuluan Juan Carlos Yoldi *El País*-eko kazetariak gogor egin zuen Velascoren aurka, bere akusazioak funtsik gabekoak direlakoan, batez ere FARC eta ETaren arteko balizko harremanetan Venezuela eta Hugo Chavezen babesari dagokionez. Zeharka bada ere kazetariak Chavezen arrazoi ematen dio honek Velasco epailea eta Aznarren arteko lotura egiten duenean, eta datuak eskaintzen ditu horretarako: Eloy Velascok ongi etorria eman zion FARC-eko buruzagietakoa zen Raul Reyes gerrilariari, FARC eta Kolonbiako gobernuaren egiten ari ziren negoziazioen barne Valentziara egindako bidaiari dela eta. Garai horretan Eduardo Zaplanaren PPko gobernuaren justizia zuzendari nagusia zen Velasco.

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

AEBetako gazteak Kuban ikasten txiroen medikuntza

Ziento pare bat gazte estatubatuar Kuban ari dira medikuntza ikasten. La Habanako gobernuak horretaz egin lezakeen propagandaz haratago, haruntza familia medikuntza ikastera joandakoen hautuak herrialde aberatsetan osasungintzak hartutako bidearen mugak azaltzeko balio du.

KUBA LAUDATZEKO GARAI ONENAK ez dira, preso disidente bat gose greban hil berria, bigarren protestari bat larri, Europa uharterako aldatketak eskatzen ari... Pentsatzekoa da, bestalde, Kuban ez dutela besteren laudorio beharrik. Julia Landau kazetariak ez du Kuba sozialistaren apologiarik idatzi, baina kontatu du zergatik eta zertara joan diren haruntza berrehundik gora gazte estatubatuar medikuntza ikastera eta kontakizunean argitu dizkigu herrialde aberatsetan osasungintzak dauzkan zulo handiak eta horiek erremediatzeko Kuba txiroak dauzkan irakaspenak.

Kalifornian karrikaritzen da *East Bay Express* astekaria. San Frantzisko ekialdeko badia eskualde aberatsa da, mundu osotik etorkinak erakarri dituena, eta bertan komunikazio aurrerazale eta alternatiboak indarra omen dauka. *East Bay Express*en Julia Landauk otsailan publikatu zuen *American are learning medicine the cuban way* (Iparramerikarrak Kubako erako medikuntza ikasten). Ikasle horietako baten ibilbideari jarraitu zaio nagusiki.

Melissa Rose Mitchel neska gazteak medikuntza ikasi nahi zuen eta kezkatuta zebilen. Ezagutzen zituen unibertsitateetan irakasten zen medikuntza hiper-espezializatuak ez zion graziaz egin. Eta okerragoa

dena, sendagile izatera iritsi arte sekulako dirutza inbertitu beharra zeukan.

Urte betez 1.400 dolar aurreztu zituen sarrerako azterketetarako prestatzeko. Bidean gomendatu zioten bada ezpada ere 20 bat unibertsitateetan emateko izena: 200 dolar eskari bakoitzeko, hegazkinez egin beharreko bidaiak, janzki egoki berriak erosi beharra... Mutil laguna enteratu zen *Interreligious Foundation for Community Organization* erakundeak eskaintzen zituela Kuban medikuntza ikasteko aukerak, gutxiengoak osasungintzan integrazteko programaren barruan.

2000. urtean ireki zen bidezidorra. AEBetako Kongresuaren baitan diputatu beltz biltzen dituen Congressional Black Caucus taldeak Fidel Castrorekin izandako elkarrizketatik sortu zen. Castrok eskaini zien parlamentari yankiei 500 sendagile hezteko aukera, La Habanako *Escuela Latinoamericana de Medicina* (ELAM) unibertsitatean. Julia Landauk dioenez urteotan 34 doktore graduatu dira eta uneotan 160 ari dira ikasten.

Sobietar Batasunaren hondortzeak Kubako egitura guztiak astindu zituen erroitik, nekazaritzatik hasita populazioaren elikadura katea edo osasungintzaraino. Medikuntzaren alorrean, aurretik,

Bost ikasle gazteok New Orleansekoak dira, La Habanako *Escuela Latinoamericana de Medicina* (ELAM) delakoan sendagile ikasketak burutzen ari direnak. Argazkia *Salud, Southwest Exchange* erakundearen gunetik hartuta dago. ELAM Kubak 1998an eraiki zuen Habanan, *Mitch* eta *Georges* urakanek Amerikako herrialde askotan eragindako txikizioen ondoren. Kubak hor urtean 1.500 ikasle hartzen ditu, mundu osotik etorriak, tartean AEBetatik. Sei urteko ikasketak burutu behar dituzte ikasleek: lehenbiziko biak ELAMen bertan oinarrituko medikuntza ikasteko, gaztelania maila ona hartzearekin batera; ondorengo hiru urteetan ikasiz batera ospitale kualifikatuetan ariko dira lanean; eta azken urtea mediku berriek interno ematen dute Kubako ospitale batean.

hamarkada luzez AEBk ezarritako enbargoaren ondorioak ere noztuzten ziren Kuban: multinazionalak ekoiztutako botika askoren falta, ospitaletako tresneria zaharkitua berritu ezina, eta abar.

Kubako agintariak osasungintza publikoa behetik goraino aldatzera behartuta aurkitu dira geroztik. Eta, hona paradoxa, herrialde aberatsetan jende txiro babesik gabeen laguntzan ahalegintzen direnek Kubako *gerrako medikuntza* aurkitu dute ikasbidea.

Gerrako medikuntza

Kaliforniako East Bay eskualdean ari dira praktikak egiten La Habanan ikasitako mediku gazteetako batzuk, tartean Melissa Rose Mitchel. Horiek kontatu dizkiote kazetariari AEBetako unibertsitateetan irakasten den medikuntzarekiko ezberdintasunak.

AEBetan, eta gero eta gehiago Mendebalde aberats osoan, unibertsitateek mediku espezializatuak atera nahi dituzte, gaitz oso zehatzetan teknologia garestiak erabiliko dituztenak. Ez espezializatzea, familiako mediku legez lan egin nahiko duena, ez da hainbeste sustatzen. Diruak asko esplikatzen du kontua: mediku ikasketak 2008an batz bestea 154.000 dolar kostatzen ziren, mediku kolegioen kalkuluetan.



AEBetan izurria izan behar du espezializatzeko joera horrek. Berrikitan Barack Obama presidentek berak onartu du estatubatuarrak familia medikuz oso urri dabiltzala, eskualde osoak daudela sendagilerik gabe. Segurantzaz sozial publiko orokortua ere falta da AEBetan, jakina.

Kuban, ez botika kariorik eta ez puntako teknologiarik era masiboan erabili ezinean, alderantziz dago antolatuta. Diru gutxi dagoenez, prebentzioa lantzen da. Horretarako kontutan hartu behar dira giza taldearen bizimodua, norberaren elikadura ohiturak, adikzioak zaindu behar dira... eta guztiaren erdian lan garrantzitsua dauka egiteko familiako medikuak. Ikasketak burutu ondoren, inongo espeziali-

zaziotan hasi aurretik, mediku kubatar guztiek bi urte gutxienez pasa beharra omen dute familiako doktore lanetan.

Kubako baliabide teknikoak ere ezin dira kontatu herrialde aberatsetan dauzkagunekin. Melissa Rose Mitchellek kontatu dio kazetariari: "Ikasten ari ginela, edozein egoeraren aurrean, irakasleak galdetzen zigun 'zer da honetarako egokiena?', gu hasten ginen aipatzen eskannerra, ultrahotsak, eta berak berriro 'baina hemen ez daukagu horrelakorik, pentsa ezazu mendi artean galduta zaudela, ez daukagula ez elektrizitaterik ez telefonorik... zer egingo zenuke?' galdetzen zigun".

Ikasleok La Habanan ikasi behar izan dute larri dauden eriak arta-

tzen ez argindarririk eta ez ur edan-garririk ez den lekuetan. Hain zuzen horrexek dauka interesa AEBetarako.

Katrina urakanak eragindako txikizioak atera zuen azalera hango komunitate askotan bizi den mixeria. Gauza bat da pobre bizitzea eta oso ezberdina agintariak arras abandonaturik bizirautea. Gero eta ugariagoak dira horrela dirautenak AEBetan.

Mitchell sendagile gazteak iazko udako oporrak eman zituen Alabama estatuan Birmingham eskualdean, hango landa eremuetako jende behartsuak artatzen herririk herri *mobile home* batean. Klinika ibiltariarekin zebilela, harriturik ohartu da zenbat jende bizi den etxoletan edo furgonetetan, elektrizitaterik eta iturriko urik gabe, horretarako diru faltan.


"Hemen, Alabamako eskualde batzuetan —esan dio Mitchellek Landau kazetariari— txirotasuna garrantzagoa da Kubako landa eremuan baino, hemen ez baitago han bezala gizarte zerbitzurik". La Habanan ikasi duen gerrako medikuntza Alabaman ere derrigor erabili beste biderik ez du izan.

Herritar guztientzako segurantzaz sozialik gabe eta medikuntza pribatu oso garestiz funtzionatzen duten herrialdeen paradigma dira AEBak. Inor ez da libratzen han. Melissa Rose Mitchell doktore gazteak oraingoz denbora erdiz egiten du lan eta berrikitan gaixotu zenean ez zuen beretzako medikurik aurkitu. 60 dolarreko antibiotikoak lagun batek eskuratu zizkion. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Bixente Serrano Izko

Jakin-mina eta plazeboak

Bizpahiru aste duela, arreta eman zidan Joan Margarit poeta katalanaren erran batek Juan Ramon Makusok hari eginitako elkarrizketakoak: “Memoria historikoa’ oximoron bat da”. Biribila errana, eta kitzikagarria, guztiz irekia historia kontuekin jira-biraka ibiltzen gaude-nontzat, dela profesionalki, dela jakin-min hutsez, dela ideologikoki –oi, historia ideologizatuaren arazo saihestezina!–.

Bere horretan, badu ematen zer pentsa. Hain zuzen, bi kontzeptu guztiz desberdinek bertze kontzeptu bat sortu dutelako. Izan ere, memoria ez da historia, eta historia, zientzia edo narrazio gisa, memoriaren –eta bertze kontu askoren– tratamendu (manipulazio, terminoaren zentzurik onenean edo txarrean/gaiztoenean) bat da. Hortaz, historiak gure memoria –eutsi nahi diogun memoria– gezurtatzen baldin badu, nola lotu kontzeptu bakar batean memoria eta historia, “memoria historiko” horretan alegia, oximoron bat egin gabe?

Dena dela, ez nago batere seguru ez ote dugun bertze figura erretoriko bat –oximoron ez bada, bai behintzat paradoxa– egiten, iragana eta historia lotzen dituen bertze kontzeptu honekin: “Iraganaren historia” alegia. Nahiz eta itxura osoz eta gure kulturaren arabera, zer izanen ote da historia, iraganarena ez bada? Sentitzen dut, baina ezetz erran behar berriro. Guztiz desberdinak dira iragana eta historia, historia eta memoria diren bezain desberdinak. Begi bistako egiaztapen bat aski da horretaz jabetzeko: zer pisu astuna duen iraganak guztiongan, horretaz kontziente izan ala ez –horretaz, printzipioz, historialariok izan beharko genuke kontzienteenak–, eta zer axolagabe garen askotan historiarekin; axolagabe, bere zentzu inozoenean eta gaiztoenean, segun: erran nahi baita, historiak ezer jakin nahi ez dugula askotan, edo haren erabilera maltzurra hobesten dugula sarri.

Iragana, historia, memoria: hiru kontzeptu guztiz desberdin, elkarren artean kontraerrankorrek gehiegitan. Iragana, korda luzekoa da, luzeenekoa: gure gaurkoa neurri handi batean baldintzatu diguna, guk jakin ala ez. Memoria, pertsonala



JOSU SANTESTEBAN

zein kolektiboa, gure oroitzapenek osaturikoa: edo gure auto-terapiak hautatu eta bideraturiko oroitzapenek eta ahantziek eraturik, edo nolabaiteko historia kontzienteagoak gure baitan utzitako arrastoen gainean eraikia. Historia, beraz, iragan eta memoriaren aurrez aurreko ertzak lotu nahi dituen zubia da. Askotan, lamien lana: ilargiaren pean egina eta egunsentiarekin desegina, gauean eraikia eta argiaren lehen zantzueta suntsitua.

Horixe historiaren arazoa: iragana eza-gutzerakoan, nahitaez, gure memoriatik, gure auto-terapiatik (pertsonala edo kolektiboa) abiatu behar duelako. Eta jakin, badakigu nolakoak izan daitezkeen auto-terapiak: auto-engainu amorratuak –plazebo izateraino– edo aditu zintzoek idatziriko prozedurei jarraikiak; auto-engainuei eusten diegunean, orduan dugu oximoron hutsa den “memoria historikoa”, oso baliagarria, guztiz eskergarria


« Historia, iragan eta memoriaren aurrez aurreko ertzak lotu nahi dituen zubia da. Askotan, lamien lana da (...).

» Tamalez, mundua mundu denetik badaude adituak, zintzo-zintzo plazeboak errezetatu nahiago dituztenak: adibidez, iraganeko Nafarroako konkistaren memoria historiko kolektiboaren oximorona (plazebo gisa) hobesten dutenak

izan daitekeena; historialari zintzoen prozedurekin lorturiko botikak, aldiz, desatseginak gerta dakizkiguke, okerrera goazelako sentipenak piztuz gure erraetan: areago, historialari zintzoenak direla hobekien dakitenak inoiz ere ezin dutena bere osoan iragana antzeman.

Tamalez, mundua mundu denetik badaude adituak, zintzo-zintzo plazeboak errezetatu nahiago dituztenak: adibidez, iraganeko Nafarroako konkistaren memoria historiko kolektiboaren oximorona (plazebo gisa) hobesten dutenak. ■

ASTE HONETAKO zozketak



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elexalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIZPUKOA

www.aquariumss.com

2



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo, BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3



Stock 13 Txalaparta Argitaletxea

5 liburu opari

Navaz y Vides kalea 1
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



888 txiste Kike Amonarriz

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

ELLAURI HOTELA

- Xabier Gaztelumendi Lopetegi (Donostia)

ILLIMANI

- Mayi Iza Agirre (Hondarribia)
- Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)

FAR WESTEKO EUSKAL HERRIA

- Imanol Alvarez Gartzia (Bilbo)
- Iker Urkia Martinez de Lahidalga (Aretxabaleta)
- Joxe Anjel Arbelaiz Irastortza (Donostia)
- Alberto Etxeberria Arrese (Oñati)
- Sara Goenaga Martinez (Iruñea)

AMAGOIA I ETXEKAR - SOINEKOA

- Itsaso Garmendia (Donostia)


URKI TXAKOLINA

- Amurrioko Justizia Jauregia (Amurrio)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



TXITXARDIN BELTXA

Oria Etorbidea, 12
☎ 37 03 04